



# Gasteizko erakunde publikoen eta herri ekimenaren osagarritasuna euskaingintzan

**Leire Lopez-Gil Peciña**  
Hizkuntza Plangintza Graduondoa  
2011-2012 ikasturtea



## 0. Aurkibidea

1. Sarrera .....	2
2. Metodologia .....	4
3. Datu historiko eta soziolinguistikoak .....	5
3.1 Datu historikoak .....	5
3.2 Datu soziolinguistikoak.....	6
4. Taldeen azterketa .....	12
4.1. Erakunde publikoen azterketa.....	12
4.1.1. Udalaren Euskara Zerbitzua .....	12
4.1.2. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzua .....	20
4.2. Erakunde publikoen arteko osagarritasuna .....	28
4.3. Herri eragileen azterketa.....	29
4.3.1 GEU elkartea.....	29
4.3.2 Gasteizko AEK .....	33
4.3.3 Gasteizko EHE.....	37
4.4. Herri ekimenaren arteko osagarritasuna .....	41
5. Ondorioak: nolakoa da osagarritasuna? .....	42
6. Azken hitza .....	56
7. Bibliografia .....	58

## 1. Sarrera

Lan honen nondik norakoak ulertzeko, abiatzen naizen hipotesiaren berri eman nahi diot irakurleari. Hau da, duela urte batzuk Gasteizko euskararen egoera ikusteko aukera izan dut. Hainbat dira euskalgintzaren inguruan diharduten erakunde edota eragileak. Beraz elkarren arteko harremana aztertzea bururatu zitzaidan, elkarren artean osagarritasuna dagoen ikusi nahi dut. Horrenbestez, honako hau litzateke nire hipotesia:

hainbat dira euskalgintzan aritzen diren erakunde edo eragileak. Hala ere, helburua bera izanik, euskararen normalkuntza eta sustapena, alegia; lankidetzaren gehiegirik ez dagoela uste dut. Hori hipotesi bat besterik ez da, kanpotik, inolako azterketarik egin gabe, esan dezakedana. Alabaina, ez dut uste dena koordinazio gabe gauzatzen denik. Beraz, nire lanaren abiapuntua osagarritasuna aztertzea izango da. Osagarritasunaren mailak, zertan egiten duten lankidetzaren, eta abar.

Honekin batera, Robert Putnamen *Gizarte Kapitala* kontzeptua azertu nahiko nuke. Batetik, harreman sare sendoa nola beharko lukeen azaltzen duelako modu logiko eta zentzudunean. Bestetik, sare trinkoak lortzeko konfiantza maila altua behar dela aipatzen duelako. Hau guztia, geroago sakonduko dut. Baina aurrerapen bezala, kontzeptu hau oso interesgarria iruditzen zait harremanak edozein erakunde, eragile zein talderen artekoa beharrezkoa dela esaten duelako. Gizarte eredu bera aldarrikatzeko eta lortzeko guztien arteko lankidetzaren beharrezkoa da, eta honekin batera, gauzak ondo eta zintzoki egiteko elkarren artean konfiantza maila altua beharko luke izan.

Esan gabe doa, Gasteizko taldeen arteko harremanen berri, taldeak beraiek eman didatela. Hau da, metodologia kualitatiboan oinarri duen elkarrizketa egin diet talde bakoitzari. Hots, beraien erantzunak bateratuta, erakunde publikoen eta herri ekimenaren arteko osagarritasun maila nolakoa den ikusteko aukera dugu. Honekin batera, beraz, eskerrak eman nahi nizkioke guztiei beraien laguntza eta prestutasunagatik.

Bestalde, lanaren korpusarekin hasi aurretik nondik norakoak azalduko ditut. Lehenik eta behin, erabilitako metodologia azalduko dut. Ondoren, datu historiko eta soziolinguistikoak aurkeztuko ditut. Geroago, modu ulergarrian azaltzeko, alde batetik, erakunde publikoak elkarren artean konparatuko ditut, eta beste alde batetik herri ekimeneko eragileak. Gero, erakunde publikoak eragileekin alderatuko ditut. Amaitzeko, aurreko atalean ateratako ondorioak aztertuko ditut, Putnamen *Gizarte Kapitalaren* kontzeptuaren ikuspegitik,

ondorio nagusi gisa. Izan ere, hori izango da abiapuntua, baina ez da teoria bakarra izango. Azken batean, ikusiko dugun moduan, teoria horretan alderdia asko lantzen dira; orduan, beste teoria batzuen laguntza bilatuko dut.

## 2. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko, erabili dudana metodologia mota azalduko dut. Hots, datuak jasotzeko, metodologia kualitatiboa erabili dut. Hau da, ikerketa datuen ekoizpenaren prozesu gisa aurkeztuko dut; horrela, subjektuaren (nire) eta objektuaren (aztergai ditudan taldeen) arteko harremana mantenduko da, objektua bera (aztergaia) eraikitzen dudana bitartean.

Nire helburua aztergaiek dituzten gizarte praktikak aztertzea da, horretarako elkarrizketa irekiak eta gidoiak dituzten ezaugarriak egokienak direnez, horiek erabili ditut. Honetaz gain, eztabaida taldea, helburua kontutan hartuta, teknika aproposa litzateke. Baina burutzeko oso zaila denez baztertu egin dut, aurretik aipatutako bietara mugatuta.

Hortaz, elkarrizketak banan banan egin ditut. Elkarrizketak erdi-egituratuak izan dira. Alegia, hasieran gidoi zabal batekin galderak egin dizkiot elkarrizketatuari bere hitz askea bilatzeko. Ondoren, berak aipatu ez dituen gauzak gidoi itxi baten bitartez galdetu dizkiot.

Gidoiak nik prestatu ditut, nire helburua lortze aldera. Hasieran, nire buruaren eta nire lanaren helburuaren aurkezpena egin diet. Ondoren, eztabaida irekia pizteko, sarrera gai gisa, beraien taldean zer egiten dute azaltzeko eskatu diet. Azkenik, gidoi itxiaren laguntzaz, elkarrizketatuak aipatu ez dituen, baina, nire interesekoak diren beste hainbat gairi buruz galdetu diet.

Esan gabe doa, elkarrizketekin bilatzen dudana ez dela soilik informazioa. Lehenengo atalean azaldu dudana legez, ondorioak Putmmanen Gizarte Kapitalaren arabera aztertuko ditut, orduan, beraien arteko harremanak nolakoak diren eta gainontzeko taldeei buruz nola hitz egiten duten ere aztertuko dut. Hortaz, hitzunari nahi duena esaten utzi diot.

### **3. Datu historiko eta soziolinguistikoak**

Atal honetan, Gasteizko datu historiko eta soziolinguistikoak azalduko ditut, gainera bada ere. Azken batean, lana kokatzeko, ezinbestekoa da testuingurua azaltzea.

#### **3.1 Datu historikoak**

Lehenik eta behin, gutxi gorabehera, azken hamabost urteetan euskalgintzak izan duen bilakaera azalduko dut. Azalpenekin hasi aurretik, informazioa AEK eta EHE-ko kideek eman didatela adierazi behar dut. Alegia, horien esanetan, ibilbidea herri ekimenetik sortuta eta kudeatuta izan da.

Beraz, esandakoaren arabera, Kontseilua sortu aurretik, hainbat arazo zirela eta, koordinazioaren beharra ikusi zuten. Hots, normalizazioaren dinamikan eragiteko asmoz, Euskaltzaleon Elkargunea osatu zuten GEU elkarteak, EHE-ek, AEK-k eta hemen aztertuko ez dudana Bagare elkartea. Jakina, dinamikak eta jarrerak instituzioekin adostu nahi zituzten; horretarako, herri ekimenaren batasuna ematea ezinbestekoa ikusten zuten, horrela, beraien artean minimoak adostuta, Udalera joan ahal izateko. Hau da, herri ekimena, instituzioen aurrean beti osagarritasunean jokatu du. Gauzak hala, talde honen lehenengo eginkizuna, EAJ-aren legislaturan ordenantzak arautzea izan zen. Aipatutako taldeen artean, testu, eta, ondorioz, diskurtso bera, sortu zuten euskararen estatusa berma zedin. Hala ere, lan handia egin eta gero, beraien ikuspuntua ez zuten aintzat hartu.

Denboran aurrera joan ahala, Euskaltzaleon Elkartea desagertu egin zen tresna horren balioa galdu egin zelako; alabaina, Udalaren aurrean beti koordinazio lanetan ibili dira. Honen ondoren, talde bakoitzak Udaleko Sektore Kontseiluan parte hartu du, EHE izan ezik. Baina, jardunbidea bera zen; hau da, guztien artean adostutako gauzak eramaten zituzten Udaleko egitura horretara, baita EHE-en oniritziarekin ere.

Bestalde, 2004an EBPN-a osatu zuen 50 000 biztanle baino gehiago dituen udalerrietan aplikatzeko; beti ere, herritarren partaidetza bultzatuta. Hala, Gasteizen EBPN ezartzea erabaki zen. Herri eragileek parte hartu zuten honen prestaketan, haiek lehenengo urrats gisa ikusi zuten nahiz eta hartutako neurriak nahikoa ez zirela pentsatu. Artean, euskalgintzak adostutako hainbat ekimen egon ziren. Adibidez, Udalak Bai Euskarari ziurtagiriaren kudeaketa Kontseiluarekin batera bere gain hartu zuen, GEU elkarteak kudeatzen duen mintzalaguna, eta beste hainbat gehiago. Izan ere, eragile guztiek, normalizazioari dagokionean, estrategikoak izan daitezkeen puntuetan batera lantzea

erabaki zuten.

Gaur egun, euskalgintzak bi bide jorratzen ditu. Batetik, diru-laguntzen murrizketak direla eta, presio bateratua egiten dute. Bestetik, Euskaraz Bizitzera Goaz aldarrikapen eguna antolatzea hizkuntza politika egokiak ezar daitezzen.

### **3.2 Datu soziolinguistikoak**

Nire lanaren ezaugarriak kontutan hartuta, 2010ean [www.euskaraba.com-en](http://www.euskaraba.com-en) kaleratutako datu soziolinguistikoak ekarri ditut hona; azterketa horrek hein handi batean nire lanarekin bat datorrelako. Gauzak horrela, hainbat alderdi ikusiko ditugu: biztanleria, hizkuntza gaitasuna, familia bidezko transmisioa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza, helduen euskalduntzea, euskararen erabilera kalean, euskararen presentzia aisialdian eta kirolean, eta, azkenik, ostalaritza eta zerbitzuak.

#### **BIZTANLERIA**

Gasteizek 236.525 biztanle zituen 2009ko urtarrilean. Hortaz, azken urteetako hazteko joerari eusten dio; urtez urte biztanleria hazten baita. Hazkuntzaren oinarrizko bi osagaiak datu positiboak ematen dituzte: saldo begetatiboa (727) eta migrazio saldoa (2.399).

Hiriko auzo berrietan biztanleriaren %6 bizi da dagoeneko: Salburuak 6.116 biztanle ditu; eta Zabalganak, 7.216.

Gasteizko biztanleriak, adinaren arabera, honako egitura du:

- 19 urtera arte: %17,1
- 20 eta 64 urte bitartean: %66,6 (bi herenak)
- 65 urte edo gehiago: %16,3

2003. urtearekin alderatuta, adin tarte gazteena apurtxo bat txikiagoa da (2003an, %17,5) eta zaharrena apurtxo bat handiagoa (2003an, %15,4).

Zonaldearen arabera esan behar da 2008an 0-14 urte bitarteko biztanleportzentaje handienak honako zonaldeetan zegoela: Lakua (%24,6), Mendizorrotxa (20,2%) eta San Martin-Ariznabarra (%20,1). Bestalde 65 urte baino gehiagoko portzentaje handiak dituztenak honakoak dira: Babesgabetuak eta Judimendi (%26,8), Zaramaga (%26,1) eta Errota (Koroatzea-Gorbea) (%25,5).

#### **HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA**

Gasteizko biztanleen artean 5etik 3 erdaldun elebakarrak dira (%57). Elebidun hartzaileak,

hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, %18 dira. Euskaldunak, berriz, biztanleriaren %25 dira (lau biztanletatik bat). 1986tik 2006ra laukoiztu da euskaldunen portzentajea. Tarte txikiagoa hartuz, hamar urteren buruan, 1996etik 2006ra, euskaldunen portzentajeak 11 puntu egin du gora eta elebidun hartzaileen portzentajea ere hazi egin da, maila askoz apalago batean bada ere. Erdaldun elebakarren portzentajeak, beraz, behera egin du (12 puntu).

5 urteko adin-tarteak aztertuta, 35 urtetik gorako adin-tarte guztietan erdaldun elebakarrak dira nagusi: erdia baino gehiago 35 eta 44 urteko bitarteko adin-tarteetan eta bi herenak baino gehiago hortik gorakoetan. Gazteen artean 25 urtetik beherako adin-tarteetan biztanleriaren erdia edo gehiago euskalduna da. 25 eta 29 urte-tarteetan antzeko kopuruak dira euskaldunak, elebidun hartzaileak eta elebakarrak.

Adina erabakigarria da biztanleen hizkuntza-tipologia eraikitzeko orduan. Gazteen artean (15 eta 30 urte bitartekoak) ia erdiak (%47,4) euskaldunak direla ikusi ahal dugu. Portzentaje hori are handiagoa da soil-soilik adin tarte gazteena kontuan hartzen badugu (15-19 urte bitartekoen %61,6). Euskaldunak eta elebidun hartzaileak kontuan hartzen baditugu, hamar gazteetatik zortzi (%78) elebidun hartzaileak dira (euskaraz ulertzen dute, alegia).

#### FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioari buruz egin diren azken ikerketen arabera guraso euskaldun berriak, hau da, euskara etxetik kanpo ikasi dutenak gero eta gehiago ari dira euskara transmititzen, eta familia bidez transmititzen ez den kasuetan, eskola bidez ziurtatzen da, neurri handi batean, seme-alaba horiek euskara ikasiko dutela. Izan ere, euskaldun berrien seme-alaben %80tik gora elebidunak dira gaur egun.

Halere, euskaldun berrien %90ek familian gaztelania erabiltzen dute nagusiki. Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi dira: hizkuntza hitz egiteko erraztasuna eta hizkuntza horretako hitzunen harreman-sarea. Euskaldun berri askoren kasuan ez dira baldintza horiek betetzen.

Familia bidezko transmisioaren nondik norakoa neurtzeko interesgarria da jakitea derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzeko garaian haurren egoera zein den. Horretarako 2 eta 4 urte bitarteko haurrak hartu daitezke kontuan:

- %29 da euskalduna (1996an %16,3 zen: 9 puntu gutxiago).
- %18k euskara izan du lehen hizkuntza.



- %3,9k euskara du etxeko hizkuntza; eta %8k euskara eta gaztelania

#### UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA

Gasteizen orotara unibertsitate aurreko 105 ikastetxe dago (etapa guztiak kontuan hartuta), horietatik 76 publiko dira eta 29 pribatu. Horietan 2008-2009 ikasturtean 37.589 ikasle aritu dira, %54 ikastetxe publikoetan eta %46 pribatuetan. Honela:

- Haur hezkuntzan %26
- Lehen hezkuntzan %32,5
- DBHn %21,5
- Batxilergoan %10,7 eta Lanbide Heziketan %9,4 Ikas-ereuari dagokionez, unibertsitate aurreko ikasleen erdiak (%55) A eremuan ikasten du, %25k B eremuan eta %20k D eremuan.

Adinaren eta etaparen arabera alde handiak daude:

- Haur Hezkuntzan B eredia da nagusia (%48,1) eta D eredia ere oso gertu dago (%44,4).
- Lehen Hezkuntzan bien arteko aldea handiagoa da eta A ereduak ere pisu handia (B eremuan %45,8, D eremuan %24 eta A eremuan %20).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan A eredia gailendu egiten da (%38,9) baina B eta D ere gertu ditu (%30,7 eta %30,7, hurrenez hurren).
- Hortik gora, B eredia hezkuntza sistematik desagertzearekin batera, A ereduak hartzen du nagusitasuna, D ereduaren gainetik, batez ere Lanbide Heziketan.

#### HELDUEN EUSKALDUNTZEA

##### **Euskaltegietako datuak**

Helduen euskalduntzea oso fenomeno zabaldua da euskal gizartean. Gasteizko daturik ez dugu, baina egin berri den ikerketa baten arabera, euskal herritarren %65 euskara ikasten saiatu da noizbait (Unesco Etxea: Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak).

Hori horrela, azpimarratu behar da urtero 6.000tik gora direla Gasteizko euskaltegietan eta autoikaskuntza zentroetan euskara ikasten duten gasteiztarrek. Adierazgarria da, bestalde, oraindik ere ikasleen kopuru handi bat (%21) hasierako urratsetan matrikulatu izana. Izan ere, ikasleen erdia baino gehiago (%51) euskalduntzearen lehen mailan dago matrikulatua (atalase maila, 1. eta 6. urratsak).

#### EUSKARAREN ERABILERA KALEAN

Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabileraren kale neurketak egiten ditu 5 urtean behin. Behaketa bidez kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera jasotzen da. BAT soziolinguistika aldizkarian Martinez de Luna (2007) irakasleak Arabako datuen irakurketa argitaratu zuen 2007ko irailean. Irakurketa hori erabili da.

### **Bilakaera orokorra**

Gasteizko kaleetan geratzen diren elkarrizketetatik %4 besterik ez da euskaraz. Hamazazpi urteotan, Gasteizen, euskararen kale-erabilera bikoiztu egin da, ehuneko ehun hazi da. Martinez de Lunaren hitzetan, “hitz potoloak dira, baina errealitate apala: 1989an %2koa zen eta 2006an halako bi (%4)”.

### **Kale-erabilera, adin taldeka**

Adin tarteka hartuta, Araba eta Gasteizko joerak ikusita, Araban erabilera pixka bat altuagoa da baina ez dago alde esanguratsurik. Haurrak eta gazteak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak, batez ere Araban (%6,8 eta %6,6, hurrenez hurren), baina baita Gasteizen ere (%5,8 eta %6,3, hurrenez hurren).

Gasteizen, heldu-haurren arteko harremanetan euskararen erabilera altuagoa da (%8,9) beste konbinazio mota guztietan baino. Gainera, Gasteizen ez ezik, Hego Euskal Herriko beste hiriburuetan ere beste horrenbeste gertatzen da.

Beste muturrean, hots, haurrik tartean egon ezean, helduen arteko erabilera apalagoa da (%2,6) harreman horietan haurren bat tartean dagoenean baino (%3). Bestela esanda, haurren presentziak helduen berauen harremanetan ere eragiten du, modu arinean bada ere. Hala ere, ez dirudi haurrek beraiek direnik euskararen erabileran euren kabuz eragiten dutenak; izan ere, solaskideen artean haurrak baino ez daudenean euskararen presentzia inoiz baino baxuagoa da (%0,8).

### **EUSKARAREN PRESENTZIA AISIALDIAN ETA KIROLEAN**

Arabako Herritarren %70k garrantzi handia ematen dio bere bizitzan aisialdiari eta %26k nahikoa. Askoz gutxiago dira garrantzi handirik ematen ez diotenak (%3) edo batere garrantzirik ematen ez diotenak (%1). Aisialdiaren balioa gorantz etorri da azken urteotan: duela hamabi urteko datuekin alderatuta, gaur egun jendeak garrantzi handiagoa ematen dio bere bizitzan aisialdiari (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 2008)

Astegunetan gehien egiten diren aisialdiko jarduerak ondokoak dira:

- Lehen-lehenik telebista, bideoa edo DVDA ikustea (herritarren %32k aipatu dute gehien

egiten dituzten hiru jardueren artean), paseatu edo kalean egotea (%24k) eta familiarekin egotea (%23k).

- Ondoren datoz lagunekin eta bikotekidearekin egotea (%18), irakurtzea (%18), musika entzutea (%14), kirola egitea (%11), atsedean hartu edo ezer ez egitea (%11), irratia entzutea (%9) eta

ordenagailuarekin denbora pasatzea (%7). Ondoren jende gutxiagok egiten dituen beste hainbat jardura datoz. Gasteizko Udalak aisialdiko eskaintza eta zerbitzuak ditu, hainbat sail eta zerbitzuren bidez: Gazteria, Gizartegintza, Kirolak, Kultura,... Eskaintza esanguratsuenak, ziur asko, gizarte etxeetako programazioan biltzen dira. 2008-2009 ikasturtean 5.033 jardura programatu ziren eta ia 100.000 plaza eskaini. Gauzatu, gutxiago gauzatu ziren: 4.213 orotara eta horietan 62.631 matrikula formalizatu ziren. Eskaintza horren parte handiena (%67,8) Kirol Sailak antolatutako jarduerak dira eta orotara 41.000 matrikula biltzen dituzte. Bigarren eskaintzarik handiena Kultura Sailak egin du: (%12,3). Beste lau atalek eskaintzaren %4,5 eta %5 bitartean dute: Herritar Harremanen Sailak (%4,5), Gazteria Zerbitzuak (%4,8 aparte kontabilizatua, nahiz eta zerbitzua Herritar Harremanen Sailaren barruan egon) eta Osasun eta Kontsumo Sailak (%4,7).

Hizkuntzari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean lau jardueratik hiru gaztelaniaz programatu ziren. Euskarazko jardueren portzentajea %13 izan zen.

#### OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK

Ostalaritza eta zerbitzuen esparruari dagokionez, establezimendu horien guztien %25 merkataritza arlokoak dira, ostalaritzakoak %7,8 eta zerbitzuetakoak %14,9 (bankuak, aseguru etxeak eta antzekoak kontatu gabe). Arlo hauek, beraz, garrantzi handia dute hiriko bizitza ekonomikoan. Ikuspegi soziolinguistikotik are lehentasun handiagoa dute arlo hauek, beren eragina biztanle guzti-guztiengana heltzen delako eta hiriko hizkuntza paisaian pisu handia dutelako. 2007an Siadeco enpresak Gasteizko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean euskararen egoera aztertzeke ikerlana egin zuen, Euskara Zerbitzuaren eskariz.

#### **Euskararen ezagutza**

Establezimenduetako enplegatuen euskara gaitasuna aztertu zen, establezimendua kokatuta dagoen zonaldearen eta jardura-adarraren arabera. Laburbilduz honako emaitzak eskuratu ziren:

- Euskaraz ongi edo oso ongi ulertzeko gaitasuna %12,9 da; hitz egitekoa %11,4; irakurtzekoa

%12,6; eta idaztekoa, berriz, %11,6. Hitz egiteko gaitasuna soilik hartuta, euskaldunen ehunekoa % 11,4koa da, beraz.

- Establezimenduetako arduradunen artean, euskaldunetz gain (%11,4) badago beste ia euskaldunen multzo bat ere % 25,6koa. Era berean, beste ikerketa batean agertzen denez ("Gasteizko txikizkako merkataritzaren giza baliabideei eragiten dieten ezberdintasun faktoreak, eta sektorearen azterketa inmigrazioarekiko" txostena), hiriko txikizkako merkataritza establezimenduetan lanean ari den pertsonen %28k euskara ulertzeko gai direla adierazten dute.

### **Euskararen presentzia eta erabilera**

Bezeroekiko komunikazioan, oro har, ahozko eta idatzizko komunikazioa kontuan hartuta, euskararen batez besteko erabilera %5,2koa da. Beraz, bezeroekiko duten komunikazioaren %94,8 erdaraz izaten da (gaztelaniaz nagusiki, baina tarteka beste hizkuntza batzuk ere erabiliz). Zonalde eta jarduera adarraren arabera aldeak adierazgarriak dira. Euskararen batez besteko erabilerarik altuena 1. zonaldean da (Erdialdea eta Alde Zaharra -%8,3-), eta baxuena, aldiz, 4. zonaldean (auzoak -%2,6). Bestalde, ostalaritza establezimenduetan gertatzen da batez besteko erabilera mailarik altuena (%7,4) eta zerbitzuetan, aldiz, baxuena (%3,4). Txikizkako merkataritza establezimenduetan, batez besteko erabilera %4,5 da.

## 4. Taldeen azterketa

### 4.1. Erakunde publikoen azterketa

#### 4.1.1. Udalaren Euskara Zerbitzua

Hasteko, erakunde honen antolakuntza azalduko dut, laburki. Organoa hainbat pertsonen osatzen dute, hamahiru pertsonen, hain zuzen. Alabaina, banaketa dago horien artean: lau pertsona itzulpen lanetan dihardute, administrazioan hiru eta normalizazio arloan bost. Horietaz gain, zerbitzu burua ere badago.

Alde batetik, Udalaren Euskara Zerbitzuak, hainbat arlo eta hartzaile ditu. Alegia, Gasteiz osoa hartzen dute kontutan; beraz, bere jarduteko eremua anitza da. Hori horrela izanik, aipatutako hirirako EBPN-n bederatzi esparru banatu dituzte Euskararen Sektore Kontseilua sorturik: helduen euskalduntzea, irakaskuntza eta familia bidezko transmisioa, aisialdia, kirolak, kultura, merkataritza, gazteak, immigrazioa eta genero ikuspegia. Hala, mahai hori sortuta, Eusko Jaurlaritzak duen politikari jarraiki, EBPN garatzeko orduan parte-hartzea bilatzen da, hainbat elkarte, enpresa, euskaltegiak eta talde politiko parte hartuta.

Bestalde, esparru bakoitzak bere ekintzak ditu, jakina; eta horietako bakoitzean elkarlana ezberdina da. Esparru hauetan lan egiteko, beraz, eragileekin, oro har, lan mahai independenteak osatu dituzte, sektore bakoitzari egokituta, alegia. Hortaz, banaka aztertuko ditut.

#### Helduen Euskalduntzea

Datu soziolinguistikoak ikusita, helduen artean asko igo da euskaldunen kopurua, alegia, askok ez zuten ama hizkuntzat euskara, baina ikasi dute. Beraz, esparru honetan, bi dira helburu nagusiak; batetik, herritarren artean euskararen irakaskuntza bultzatzea, eta, bestetik, euskara erabiltzeko espazioak edota aukerak eskaintzea euskara ikasleei eta ia-euskaldunen kolektiboari; batez ere, aisialdiari lotuta. Lehenengoari dagokionez, lau dira erabiltzen dituen estrategiak, eta bigarrenari, ordea, bi. Estrategia horiek aurrera eramateko, jakina, ekintza ezberdinak antolatzen dituzte; batzuk beraien aldetik, eta beste batzuk aldiz, elkarlanean.

Batetik, lehenengo helburuari dagokionez, lehenik, herritarren artean euskararen irakaskuntza bultzatzeko, euskaltegiekin lankidetzan arituz, euren lana erraztu eta

eraginkorragoa izateko, hitzarmenak ditu euskaltegiekin. Honela, beraien propaganda zabaltzen laguntzen dute, besteak beste. Bigarrenik, herritarrei euskalduntzean erraztasunak eskaintzeko, diru-laguntzak ematen ditu. Hirugarrenik, sentsibilizazioa eta komunikazioa lantzeko, euskaltegi bakoitzak egiten duen matrikulazio kanpainari dagokionean laguntza ematen du. Laugarrenik, euskaltegi-tako eskaintza beste eragileekin koordinatuz (merkataritzaren ganberarekin, ikastetxeekin...) sustatzeko, diru-laguntza bereziak ematen dituzte merkatariei, gurasoei eta begirale edota hezitzaileei zuzendutakoak. Honetaz gain, euskara ikastaroak antolatzen ditu, AEK euskaltegiarekin duen hitzarmen baten bitartez, gurasoentzat, merkatarientzat, aitona-amonentzat eta ostalarientzat.

Bestetik, bigarren helburuari jarraiki, lehenik, euskaltegi-tara erakunde ezberdinetatik iristen diren eskaintzak bateratzeko eta zabaltzeko, denon eskura dagoen urteko katalogoa sortu du. Honekin batera, ikasleei orientazioa eskaintzeaz gain, programazio espezifiko baten bidez, euskaltegiek dituzten programaziotik abiatuta, mintzapraktika programak abian jarri dituzte. Bigarrenik, euskarazko harreman sareak sortzeko, gurasoen artean, batik bat, GEU elkarteak antolatzen eta kudeatzen duen mintzalaguna aipatutako kolektibora zabaldu nahi du.

#### Irakaskuntza eta familia bidezko transmisioa

Esan gabe doa Gasteizko gazte asko euskaldunak direla hezkuntza euskalduna dela eta, beraz berebiziko garrantzia duen sektorea dela esan dezakegu. Horrenbestez, arlo honetan, aurrekoan bezala, bi dira helburu nagusiak: udalaren hezkuntza programak hizkuntzaren normalkuntzari begira jartzea eta familia aisialdirako eskaintzetan euskararen normalkuntzaren presentzia indartzea.

Lehenengo helburua lortzeko, beraz, lau estrategia dira nagusi. Lehenengoa, udalaren eta hezkuntza komunitatearen arteko komunikazioa hobetzea da. Horretarako, lan-mahaia iraunkorra sortu du urtez urteko planak eta irizpideak eztabaidatzeko. Bigarrena, eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen normalizazioa bultzatzea da, hala, "eskolaz kanpo euskaraz" programa zabaldu dute ikasleen artean, eskolaz kanpoko ikastaroan antolatzeko diru-laguntzak arautu eta ematen ditu, udalekuen programetan hizkuntza ikuspegia txertatu dute, eta, honetaz gain, euskararen presentzia gutxi duen eskoletan, interbentzio espezifikoak egiten du eskolaz kanpoko ekintzetan agertzeko. Hirugarrena, ikastetxeen beharretatik abiatuta, euskararen normalkuntza duten programak sortzen edota bermatzea. Bide

horretatik, ARIN aldizkaria kaleratzen du euskarazko produktuen katalogoarekin batera, Euskararen Astea antolatzen du ikastetxeetan, euskal jolasak eskaintzen dituzte familientzat, Mantangorri (Berria egunkariko hurrei zuzendutako atala) banatzen du eta ikastetxeek familia-erabileran eragiteko dituzten beharrak eta proposamenak aztertu eta programa horiek diruz lantzeko aukerak ikusten ditu. Azkenik, euskararen normalizazioa eduki dezaketen programak identifikatzeko eta, aldi berean, lantzeko, pedagogian eta normalkuntzan adituak direnen lantaldea osatu du hezkuntza programak aztertu eta txosten bat osatzeko, batez ere, dauden programak normalizazio prozesuan erabilerari buruz hausnartzeko. Halaber, gazteentzat soziolinguistika programak aurrera eramaten ditu. Bestalde, familia aisialdirako eskaintzetan euskararen normalkuntzaren presentzia indartzea, bigarren helburu gisa, bi estrategia nagusi jarraitzen ditu. Batetik, familia aisialdia aztertzen du eta euskarazko irizpideak aplikatzen ditu. Hori lortzeko, udal sailarekin eta eragileekin lantaldea osatu du. Bestetik, euskararen ekintzan zabalkundea egiteko, GEU elkarteak tueb euskararen agendaren barruan atal espezifikoak sortu du.

### Aisialdia

Aisialdia eremu konplexua dugu, hau da, eskaintza ugari dago, baina, orobat, euskarak ez du lekurik horretan. Horretaz gain, oso garrantzitsua da euskaraz mintzatzeko guneak izatea; hala ere esan bezala, gaur egun ez da hori gertatzen. Hortaz, hori aldatzeko, kasu honetan ere, aisialdia osatzen duen lan mahaiak bi helburu planteatu ditu: aisialdian eragiten dutenen artean normalizazioaren ikuspegia lantzea eta aisialdiko ekintzetan eta programetan euskararen eskaintza, presentzia eta erabilera zabaltzea.

Hori horrela izanik, hainbat dira aurrera eramaten dituzten estrategiak. Lehenengoan, kasu, hiru estrategia nagusi zehaztu ditu. Batetik komunikazioa eta koordinazioa lantzeko, lehenengo gauza, aisialdia eta euskara lantaldea osatu du. Ondoren, begirale sara eratu du, eta horiekin, topaguneak egin dituzte formatu ezberdinak esploratzeko. Esan gabe doa, euskarazko begirale ikastaroan diruz laguntzen duela. Honekin batera, datu-basea osatu du euskararen erabileraren inguruko datuak eta elkarteen beharrak jasotzeko. Bestetik, eragiten duten enpresak eta elkarteak konpromisoak hartzen animatzeko, dinamizazio programa kudeatzen du Udaleko Gazteria Zerbitzuarekin batera. Bertan, oro har, banakako harremanak zaintzen dituzte enpresa eta elkarteekin, beraien egoera aztertzeko aukera emanaz. Geroxeago, azterketa horietatik abiatuta, konpromiso zehatzak identifikatzen

dituzte neurriak gauzatzeko laguntza eskainita. Azkenik, laguntzak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, prozedura eta jarraipena egiteko bideak departamentuekin adostez gain, goian esan bezala, diru-laguntzak, normalizazioaren inguruko formakuntza saioak antolatzen ditu.

Bigarren helburua aurrera eramateko, aldiz, bi dira estrategia nagusiak. Lehenengoa, euskara erabiltzeko irizpideak lantzen ditu. Horretarako, Udaleko Kultura eta Gazteria Zerbitzuekin bat eginda, Udalaren euskarazko eskaintzaren ikerketa eta ebaluazio zorrotza egin du. Esan beharra dago, bereziki gazteei zuzendutako programak eta espazioak direla identifikatu eta ebaluatu behar direnak; gerora begira, hobekuntzak garatzeko. Bigarrena, hots, hainbat proiektu diruz laguntzea, hiru ekintzen bitartez osatzen da: euskara zinema aretoetan bermatzea, Amaia zentroan aisialdia euskaraz dela bermatzea eta proiektu zehatzak diruz laguntzea.

### Kirola

Atal hau, osasungarria izateaz gain, sozializatzeko esparrua ere badela esan dezakegu. Beraz, noski, hizkuntzak eragin zuzena izan dezake esparru honetan. Hori dela eta, sektore horretan bi eragin esparru identifikatu dituzte, kirol programetan euskararen irizpideen presentzia eta betetze maila, zein neurri edo konpromisoak hartzen dituzten taldeen kopurua aztertzea oso garrantzitsua baita.

Beraz, lehenengoari lotuta, euskararen irizpideak aplikatzen dituzte prozedura eta bideak sailekin adostuta. Bigarrenarekin, berriz, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlana bultzatzen dute. Gainera, bai formazioan eta sentsibilizazioan eragiteko bai laguntzak eta zerbitzuak eskaintzeko, euskarazko baliabideak nahiz diru-laguntzak eskura jartzen ditu. Honekin guztiarekin batera, eragiten duten enpresak eta elkarteak neurriak zein konpromisoak hartzera animatzen dituzte dinamizazio programa bat gauzatzeko aukera eta laguntza eskainita.

### Kultura

Jakina denez, hizkuntza eta kultura oso lotuta daude, askotan batera doazela ere esan dezakegu. Horrenbestez, euskarazko produktuen merkatuan eragitea eta euskarazko kultur eskaintza koordinatzea eta zabaltzea lirateke esparru honen jardunbide nagusiak.

Egia esan, asko dira euskarazko produktuak, hortaz, merkatu horretan eragiteko lau eduki ezarri dituzte: hasteko, produktu berriei jarraipena egitea egitasmoetan Euskara



Zerbitzuaren presentzia bermatuz. Ondoren sorkuntza euskaraz izaten bultzatzeko Gasteizko sortzaile euskaldunon gida zabaldu du eta, horretaz gain, irakurzaletasuna pizteko Vitoria Gasteiz saria antolatu du. Gero, euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzeko, katalogoa sortu dute. Azkenik, euskarazko produktuen kontsumoaren eskaintzari erantzuteko, liburu eta jostailu dendetan euskarazko produktuak saltzera bultzatzen ditu.

Bestalde, kultur eskaintza koordinatzeko eta zabaltzeko, GEU elkarteak kudeatzen duen euskararen agendaren bitartez, eragileen koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeaz gain, zabalkundea egiten ere laguntzen du.

### Merkataritza

Ikus dezakegunez, merkataritza herritar guztiongan eragina duen sektorea da; azken finean, denok ditugu harremanak merkatariekin. Hori horrela izanik, komunikazio ekintzen bidez, euskarak arlo honetan duen irudian izango litzateke helburuetako bat, horrela, hau bera erakargarriagoa eginda. Hori gutxi balitz, zerbitzuen eta laguntzen bitartez, sektore horren interes eta premiei egokituta, euskararen presentzia, ezagutza eta erabilera handitzea du helburutzat.

Hori guztia aurrera eramateko, alde batetik, lehenengo helburuari lotuta, egoera irudikatzeke, lan ildoak, gestio planak eta irizpideak zehazteko lantaldea sortu du. Honekin batera, Gasteizko hiritarren hizkuntza jokabideak aztertzen dituen ikerlana egin eta horren komunikazioa eta zabalkundea egun du. Honetaz gain, Gasteizko denda euskaldunen topagune informala sortu du, bakoitzak bere esperientzia konta dezan; eta, hemendik abiatuta, euskal merkatalguneen datu-basea osatu du. Horretaz gain, sentsibilizatzeko nola ahaleginak saritzeko, merkataritzan, alegia, euskara zabaltzeko eta sustatzeko kanpaina sortu du, eta, horri lotuta, euskarazko produktuen katalogoan txertatzeaz gainera, euskararen sustapenean praktika onena saritzen du.

Beste alde batetik, bigarren helburuari dagokionez, hiru dira darabilen estrategiak: batetik, establezimenduei zerbitzuak helarazteko, horien eskaintzaren promozioa kudeaketa eta jarraipena egiten du. Bestetik, zerbitzu zehatzak eskaintzeko, establezimenduen karteltxoak euskaraz ematera bultzatzeaz aparte, errotulu nagusia euskaraz emateko diru-laguntzak ematen ditu eta euskara ikastaroak eskaintzen ditu. Azkenik, aurrerantzean kontutan hartzeko, eragile izan daitezkeen merkatalguneak identifikatzen dituzte; hala, lehentasunezko saltokietan, Merkataritza Euskalduntzeko Plangintza Integrala egin du.

### Gazteak

Hezkuntza bidezko transmisioan ikusi dugun legez, gazte asko elebidunak dira. Hala, Udaleko Gazte Planaren barruan euskarari lotutako bi helburu txertatu eta zehaztu ditu Euskara Zerbitzuak. Helburu horiek honako hauek dira: gazteekin batera hizkuntza normalizazioaz hausnarketa egitea eta gazte taldeei laguntza ematea, beraien jarduna euskaraz izateko.

Hori horrela izanik, lehenengo helburuarekin bat egiten duten bi estrategia proposatu ditu. Lehenengoa, errealitatea hobeto ezagutzea da; horrenbestez, EHUrekin batera, "Euskara eta Gazteak" ikerketa antolatu du. Horrekin batera, hausnarketarako eta eztabaidatzeko gureak zabaltzeko, Soziolinguistika Gazteentzat programa abian jarri du. Horretaz gain, DBH eta Batxilergoa euskaraz egiteko kanpainak babesten ditu.

Bestalde, bigarren helburuari jarraiki, eragiten duten enpresa eta elkarteak, dinamizazio programaren bitartez, neurri eta konpromiso zehatzak hartzen animatzen ditu. Gainera, laguntzak eta zerbitzuak eskaintzen ditu; esaterako, doako itzulpen zerbitzua dago gazteentzat, edota, elkarteen eta enpresen ezaugarriak eta egoera aztertu du, gerora, zerbitzuen katalogo bat osatzeko.

### Immigrazioa

Gaur egun, etorkinen kopurua altua dela esan dezakegu. Hala ere, adituen iritziz, horrek ez dio kalterik ekarri gure hizkuntzari. Pertsona hauek gure esparrura hurbildu bekar ditugu.

Gauzak horrela, etorkinei euskarari buruzko informazioa izango litzateke Euskara Zerbitzuaren helburua. Horri lotuta hiru estrategia zehaztu dituzte: udalaren harrera prozedura aztertzeke, Zerbitzu honetako teknikariekin bilerak antolatzen ditu. Honekin batera, harreran txertatu beharreko informazioaren inguruan eztabaidatzen dute, beti ere, formazio saioak jaso eta gero. Bukatzeko, informazioa eta sentsibilizazioa lantzeko, euskara eta kulturartekotasunari lotutako hitzaldiak eta saioak antolatzen ditu.

### Genero Ikuspegia

Euskararen datu soziolinguistikok emateko, genero ikuspegia kontutan hartu izan da. Hala eta guztiz ere, beti ez da aintzat hartu, horrela, euskararen sustapenari dagozkion jardunbide eta politiketan generoaren ikuspegia lantzea du helburu.

Helburu hori lantzeko, alegia, datu soziolinguistiko nagusiak generoaren ikuspegitik berrirakurri ditu, hiriko errealitate soziolinguistikoa genero ikuspegitik aztertu eta Euskara Zerbitzuaren programetan genero ikuspegia lantzeko beharraren azterketa eginda. Hori horrela, programaren azterketa eta egokitze proposamenak jorratu ditu.

## UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAREN IRITZIA EUSKALGINTZAN DAGOEN OSAGARRITASUNAREN INGURUAN

Goian ikusi dugun bezala, hainbat dira Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen ekintzak. Aipatutakoen artean, Udaleko beste hainbat zerbitzuak ageri dira. horietaz gain, GEU elkarte ere ageri da. Zenbait ekintza antolatzen dituzte batera, eta EBPN-ko arduradunek adierazi dutenez, oso harreman estua dute.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak Aholku Batzordea ezinbestekotzat jotzen duenez, hau da, partaidetza beharrezkoa iruditzen zaienez, Euskararen Sektore Kontseiluaren bitartez gauzatzen du hori. Gainera, hori litzateke EBPNaren oinarria. Alegia, bertan hainbat eragilek hartzen dute parte, beraz, horien arteko harremana estua dela esan dezakegu. Talde teknikoaz gain, talde politiko bakoitzeko ordezkaria (Bildu, PNV, PP eta PSOE), euskaltegiak (AEK, IKA, Hegoalde eta Udaberria), GEU elkarte, Olabide Ikastola, Denon Eskola, Arabako Bertsozale Elkarte, eta abar.

Horretaz gain, beste erakunde publikoekin, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuarekin kasu honetan, elkarlana ona dela diote erakunde horietako elkarrizketatuek. Harreman formala eta informala dute haien artean, azken finean, elkarlanean aritzen dira eta konfiantza daukate. Bestalde, AFAko Euskara Zerbitzuarekin koordinazio handia dutela uste dute, inoiz ez baitute, beraien iritziz ekimen bat aldi berean antolatu. Izan ere, koordinazioa hobetu daitekeela uste dute.

Euskalgintzan dihardutenen artean ere koordinazioa dagoela iruditzen zaie. Adibidez, egun puntaletan, beste edozein eragilerekin koordinatzen dira ekintzak antolatzeko orduan. Beraien esanetan, inor ez da programaziotik kanpo geratzen, baina kritikak jaso izan dituztela adierazi dute.

Hala eta guztiz ere, EHE eragileari buruz ez dute asko hitz egin, beraz, garrantzitsua iruditu zitzaidan horri buruz galdetzea. Hots, Euskara Zerbitzuaren arabera, ez dituzte tirabirak beraiekin, baina ez dira elkarlanean aritzen. Beraien ustez, harreman falta, orokorrean hartuta, eragile bakoitzak ezartzen dituzten lehentasunen araberakoa da; eta, adierazi duten bezala, EHE-ek eta Udaleko Euskara Zerbitzuak lehentasun ezberdinak dituzte.

Laburbilduz, atera dezakedan ondorio nagusia zera da: Sektore Kontseiluaren bitartez Gasteizko euskalgintzaren aldeko harremanak sendotzea eta, noski, koordinazioa bilatzea da. Hala ere, batik bat, lehentasunak direla eta koordinazioa ez da erabatekoa.

#### **4.1.2. Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzua**

Jarraian, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuaren nondik norakoan azalduko ditut. Hasteko, zerbitzu buruak, teknikari batek eta, une honetan, (hemendik gutxira utzi behar baitu) administrari batek osatzen dute. Hala ere, esan beharra dago, beti ez dela izan zerbitzu independentea; hau da, orain dela hiru urtera arte, gutxi gorabehera, Kultura eta Kirol sailaren egituraren barruan zegoen kokatuta.

Orain, zerbitzu independentea den neurrian, eginkizunak ondo markatu ditu: Euskara eta Kultura Zuzendaritzari euskararen normalizaziorako eta sustapenerako aplikatu beharreko neurriak proposatzea, Udalekin, toki erakundeekin eta elkarteekin elkarlanean aritzea, euskara sustatzeko jarduerak bultzatzea eta gizartearen hainbat eremutan euskara ezartzeko edo biziberritzeko ekimenak eragitea edota aldezte.

Goiko hori aintzat hartuta, Euskararen Aholku Batzordea osatu zuten. Horren helburu nagusia, alegia, Araban euskara garatzeko eta sustatzeko aholku eta kontsulta organoa izatea da. Esan gabe doa, batzordea euskararen normalizazioan eragina duten pertsonak zein eragileek osatzen dutela. Gaur egun, hogeita zortzi dira parte hartzen duten eragileak, eta, horiek, Arabako euskararen egoeraren argazkia egin dute; jakina, aurrerantzean jorratu beharreko lan-ildoak zehazteko, eta, honen arabera, aholkuak eta iradokizunak egiteko. Gainera, hizkuntzaren balioak ezarri dituzte Fishmanen *“Reversing Language Shift”* liburuan ageri den edozein hizkuntzaren biziberritze prozesuari jarraiki.

Bestalde, Plan Estrategikoa gauzatzeko bi aldi izan zituzten. Batetik, gizarte eragileen eta herritarren parte hartzea, esparruetako hausnarketa estrategikoa egiteko eta helburuak nola estrategiak proposatzeko. Bestetik, Euskararen Foru Zerbitzua eta Euskararen Aholku Batzordea kontrastatzea eta onartzea. Gainera, urtez urte, balorazioa egingo da eta betetze maila zenbatekoa izan den kalkulatu da.

Hori horrela izanik, lehentasuneko esparruak ezarri dira Arabako errealitatera ondo egokitze, eta, jakina, Aholku Batzordearen barruan ere, esparru bakoitzari egokitutako mahai bat osatu zen. Hortaz, honako hauek dira ezarritako esparruak: gazteak eta aisia, helduen euskalduntzea, kulturgintza, merkataritza eta ostalaritza, familia transmisioa eta irakaskuntza, komunikabideak eta Informazio eta Komunikaziorako Teknologia berriak (IKT) eta administrazioa. Izan ere, oro har, sare sendoa sortzea da lehenbiziko helburua.

Esan beharra dago, mahai bakoitzari diagnostikoa nola bi helburu nagusi zehaztea eskatu zitzaiola, eta ondoren horiek lortzeko estrategiak eta dagozkien ekintzak zehaztea.

### Gazteak eta Aisia

Mahai honen arabera, euskararen normalizaziorako oztopoak daude gazteriaren artean. Horien ustez, beraz, aisialdian sortzen den giroa gazteleraz ematen da. Hori horrela izanik, euskarari prestigio gehiago eman behar zaio, esparru honetan. Bestalde, aisialdi eskaintza geroz eta euskaldunagoa izateak baikorki hartu dute.

Hortaz, honen harira, bi helburu zehaztu dituzte, goian esan bezala. Lehenengoa euskarazko eskaintza bermatzea eta esparru berrietan zabaltzea da; eta, bigarrena, euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino erakargarria eta ezberdina izatea.

Hala, lehengoari lotuta, lau estrategia planteatu dituzte: lehenik, eragile guztien elkarlana eta koordinazioa bultzatzea; bigarrenik, euskararen normalizaziorako eskaintza-ereduen inguruan hausnarketa egitea eta horren inguruan prestakuntza lantzea; hirugarrenik, sentsibilizazio ekimenak egitea, jarduera guztietan euskararen presentzia indartzeko; eta, azkenik, ekintzen osotasuna kontutan hartuta, proposamenak egitea.

Bigarrenari lotuta, ordea, hauek dira ezarritako estrategiak. Hezitzaileen prestakuntza eta formazioa garatzea ezinbestekotzat jo dute, eta, horretaz gain, ludikotasuna ondo saltzen asmatu behar dute. Betiere, eskaintza-ereduaren inguruan hausnarketa eginda, horren prestakuntza lantzea, jakina, eragile ezberdinen arteko koordinazioa ahaztu gabe.

Gauzak horrela, hainbat ekintza planteatu dituzte, hona hemen horietako batzuk: koordinazio sistema bat sortzea, herrialde guztirako baliagarriak diren eskaintza estandarrak eraikitzea, sentsibilizazio ekintzak antolatzea, eta abar.

### Helduen euskalduntzea

Aholku Batzordearen mahai honen aburuz, esparru honetan plan zehatzik ez egoteak ez du laguntzen. Gainera, instituzioek sentsibilizazio kanpainak egin beha lituzketela uste du. Izan ere, ikasleen kopurua goraka doa, eta, horren ondorioz, normalizazioaren aldeko lana aitortuta geratu da.

Hori aintzat hartuta, bi helburu ezarri dituzte; eta, horietako bakoitzarekin batera, alegia, zenbait estrategia. Lehenik, Aldundiak epe luzerako plan bat aurrera eramatea proposatu du instituzioek gizartean euskara ikasteko gogoia sortuta, nolana ere, tokian tokiko

errealitateri egokituta. Gainera, esparru desberdinean lankidetzaz bermatu eta sektorearen garrantzia azpimarratu nahi du diskurtso berri baten bitartez. Bigarrenik, euskara landu eta zabaltzeko ardura instituzioek bere egitea proposatzen du. Horrenbestez, gizartea sentsibilizatzearaz gain, esparru honetan Udalen normalizazio plana eramateko ardura eta laguntza ematea lortu nahi du.

Hori guztia lortzeko hainbat ekintzekin saiatu da, diru-laguntzak, hitzarmenak, matrikulazio kanpainak, euskalduntzeko plan berezitua, besteak beste.

### Kulturgintza

Sektore honen arabera, gizarteak, oro har, gero eta gutxiago hartzen du parte kulturgintza jarduerak sustatzeko, gainera, Udalek, jarduera hauek antolatzea elkarrekin esku utzi ohi dute. Beraz, euskararen normalizaziorako oztopo handiak daudela dio. Alabaina, euskarazko kultur eskaintza handitzen doa; elkarrekin lan handia egin dute horren alde, eta, hori, oso positiboki baloratzen du.

Hori dela eta, Arabako kulturgintzan diharduten elkarte eta erakundearen artean komunikazioa elkar trukatzeko eta koordinazio egokia izateko sarea eratu nahi du. Horretarako, alegia, baliabideak jarri dituzte eta mahai finkoa osatu dute kulturgintzan diharduten guztien topaleku bezala. Honekin batera, herrialde mailako ikuspegi orokorra eratzeko jarduera eta kanpaina bateratuak sortu nahi ditu. Bide batez, kultur eragileen jarduna errazteko eta beraiek ere kultur eragile bihurtzeko, instituzioen inplikazioa lortu nahi du. Hala, baliabideak eskainiko dira, komunikazioa eta elkarlana bultzatuko dira eta eragileen ekimenak zaindu eta bultzatuko dituzte. Horrekin batera, euskara denona eta denontzat dela zabaldu du.

Hortaz, horri lotutako hainbat ekintza planteatu dituzte. Adibidez, Arabako kulturgintzan diharduten eragileen zerrenda osatu dute, gainontzekoek, edozertarako eskura izan dezaten; gainera, mahai finkoa osatzea ere planteatu da. Hori gutxi balitz, urtero euskara sustatzeko plan bat eraiki dute eta jarduera nagusiek euskara kontutan har dezaten, beste plan bat aurrera eraman du.

### Merkataritza eta Ostalaritza

Dakuskigunez, oso esparru erdalduna da hau, eta, halaber, bezero gehienek ez dute euskarazko eskaririk egiten. Dena dela, pixkanaka, euskal merkatu interesgarria sortzen ari

de merkatariarentzat erakundeek martxan jarritako planei esker. Horren harira, saltoki handi batzuk ere euskalduntzen hasi dira, gainontzekoentzat erreferentzialak direnak.

Esan gabe doa, mahai honek, bi helburu zehaztu dituela esparru honetan euskararen normalizazioan eragiteko.

Batetik, Arabako merkatu euskaldunaren eskariari erantzuteko eta dagoena sustatzeko merkatariak eta ostalariak sentsibilizatu nahi ditu. Hori egin ahal izateko, prozesu horretan gizartearen parte hartze aktiboa bermatu du; markatuari euskaldunei prestigioa emateko Gida Komertziala osatu du; eta, erakundeek bideak errazte aldera, baliabideak (formazioa, informazioa) eskaintzea eskatu du, behinik behin. Hori horrela, erreferenteak diren komertzioekin ikerketa eta proba pilotuak egitea planteatzen da.

Bestetik, bertako produktu estrategikoen merkatua euskalduntzeko, ekoizleak sentsibilizatu eta bertara eta mundura zabaltzeko baliabideak eman ditu. Modu horretan, elkarlana eta Euskara Planak sustatzea zein bitartekoak bideratzea ezinbestekotzat jo du. Halaber, datuen bitartez, etekin ekonomikoa erakutsi du, eta, marketin munduan, euskararen erabilera sustatu nahi dute kontsumitzaile eta ekoizleak sentsibilizatu.

Horrenbestez, zenbait ekintza zehaztu dituzte hori gauzatu ahal izateko. Esaterako, euskaldunak diren establezimenduei prestigioa ematea, sariak ematea, ikastaro berezituak eskaintzea, eta abar.

#### Familia transmisioa eta Irakaskuntza

Jakina denez, askotan, ikastetxeetako eskolaz kanpoko jardueran euskararen transmisioetik kanpo gelditzen dira. Haatik, bi horien artean ez dago koordinazio handirik. Gainera, gurasoek eskalari egozten diote transmisioaren ardura. Ostera, euskarazko hezkuntzak prestigio handia hartu du; horren ondorioz, guraso asko euskaldundu dira, maila apal batean.

Hori ikusita, eskolaz kanpo ere euskaraz bizi ahal izateko, ikastetxez kanpoko eragileekin elkarlanean aritzea berebiziko arrantzia duela uste du esparruko mahaiak. Honekin batera, euskara berreskuratzeko, hezkuntza komunitate osoaren gogoeta, formazioa eta partaidetza lortu nahi du.

Hortaz, lehenengoari jarraiki, honako hauek dira aurreikusten dituzten estrategiak: kanpoko eragileak identifikatuta, elkarlaneko dinamika sortu eta suspertzea eta Plana diseinatuta, praktika onak konpartitzea.



Bestalde, bigarrenari lotuta, soziolinguistika oinarrietan jantzita, formazioa eskaintzea izango litzateke estrategietako bat. Halaber, metodologia kontu-hartzailearen bidez, euskararen sustapena egin dute, sentsibilizazioa eta hizkuntza gaitasun komunikatiboa garatuz, orobat.

Horretarako, noski, kanpo eragileen errolda egin du, eskolaz kanpoko jardueretan ari diren eragileei laguntza eskaini dio, eskaintzak aztertu ditu, guraso euskaldunen taldeei sentsibilizazio eskaintzak egin dizkio, besteak beste.

### Komunikabideak eta IKT-ak

Esan gabe doa, euskararen presentzia zein ohitura oso txikia dela hedabideetan. Mahai honen iritziz, horren arrazoia Araba mailako hedabiderik ez izateari egozten diote. Baina, gaur egun, teknologia berriek aukera asko ematen dituzte, eta, gutxienez, euskal hedabideek Arabako lurraldea kontutan hartzen hasi dira.

Beraz, hau ikusita, gizartearen jarrerak aintzat hartuta, herrialdean eskuragarri dauden euskarazko komunikabideak gehiago kontsumitzen laguntzeko, horiek eskura jarri ditu. Horrekin batera, euskaraz sortutako publizitatea sustatu eta saritzeaz gain, diru-laguntzak ere arautu ditu.

Bestalde, herri ekimenetik sortzek diren komunikabideen egitasmoak babesteko, erakundeen arteko elkarlana sustatu nahi du. Hala, multimedia egitasmoa ikertuko lukeen merkatu azterketa gauzatuta, inguruko esperientzien berri jaso du eta sortu diren egitasmoak gizarteratu ditu.

Gauzak horrela, aldizkariekin nola egunkariekin hitzarmenak egitea proposatzen du, harpidetza sustatzeko, alegia. Horretaz landa, [www.euskaraba.com-en](http://www.euskaraba.com-en) eskuragarri dauden webguneen berri ematen da, euskarazko publizitate onenari saria ematen zaio, eta abar.

### Administrazioa

Oro har, esparru honen euskalduntzean aurrerapauso handiak eman dira, hala ere, sektore gutxi batzuetara mugatzen da. Gainera, kasu gehienetan, ez dago euskara erabiltzeko motibaziorik ez asmorik. Alabaina, esan bezala, administrazioa euskalduntzeko egin diren Erabilera Planek eragina izan dute, eta, egoera normalizatuagoa bilakatzen ari da pixkanaka.

Hori dela eta, euskarazko eskariaren eta eskaintzaren artean lotura egiteko, gizartean eta

administrazioan bideak jartzea, eta, langileei, erabilera gehitzeko tresnak ematea dira mahai honek zehaztu dituen helburuak.

Horiek aintzat hartuta, lehenengoari dagokionez, lau estrategia proposatu dituzte. Lehenik, lanean euskaraz egitea erakargarri bihurtzea; bigarrenik, aurreko hori gauzatzeko, erraztasunak jarri nahi ditu; hirugarrenik, normalkuntzan ari diren langileen prestakuntza, estrategiak eta jarrerak lantzea; eta, azkenik, zeharkakotasuna, hots, administrazioaren leku guztietan euskara bermatzea oso beharrezkotzat jo dute.

Bestalde, bigarrenari dagokionez, euskaraz lan egitea erakargarri bihurtu nahi dute, horrela, erraztasunak jartzea ezinbestekotzat dute. Honekin batera, normalkuntzan ari diren langileen prestakuntza, estrategiak eta jarrerak lantzea proposatu du, beti ere administrazioko unitate guztiek euskara bere egiteko.

Gauzak horrela, erakundetan euskara sustatzeko komunikazio kanpainak, eta egitasmoak burutu dituzte, adibidez. Horretaz gain, ahalegin berezia egingo da udal eta koadrila bakoitzak bere EBPN eta Erabilera Plana garatu eta onar dadin.

ARABAKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ZERBITZUAREN IRITZIA EUSKALGINTZAN DAGOEN  
OSAGARRITASUNAREN INGURUAN

Hasteko, atal honen sarreran esan bezala, euskalgintzan dihardutenen artean sare sendoa sortzea da helburu nagusia. Hots, administrazioaren eta elkarteen arteko harremana sortu eta bermatu nahi du zerbitzu honek. Gauzak horrela, koadriletako teknikarien arteko harreman mahaia sortu du, horiek, azken finean, bere jardun eremuko administrazioaren eta elkarteen elkarlana bideratzen duten heinean, mahai horretan, guztien artean, herrialdearen ikuspegia osatuko lukete.

Hala eta guztiz ere, Udaleko Euskara Zerbitzukoek adierazten ziguten bezala, lehentasunak markatzeko zailtasunak daude; azken batean, talde bakoitzak bere ekimenari lehentasuna eman nahi dio, eta, hala, desadostasunak datoz.

Bestalde, zerbitzuaren hartzailea herria dela azpimarratu digu Zerbitzu buruak, eta esan bezala, Koadriletako teknikariek, horretan, bitartekari lana egiten dute. Hortaz, guztien arteko lankidetzaz ezinbestekotzat jotzen du.

Hori ikusita, esate baterako, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin harreman estua dutela antzeman daiteke; hots, harreman jarraitua dute. Elkarren berri daukaten arren, batzuetan hori ez da nahikoa izaten, honen ustez. Esan nahi da, denbora dela eta bilerak egiteko zailtasunak dituzte, baina teknologia berrien laguntzari esker, elkarren berri dute. Gainera, euskalgintzan dihardutenen artean, ekintzak antolatzeko orduan, besteak, beste, koordinazio falta handia dagoela adierazi du. Azken batean, beti dago zer antolatu, eta, askotan, gainontzekoak aintzat hartu gabe prestatzen dira gauzak. Horrenbestez, hori saihesteko, agenda sortzea beharrezkoak dela aipatu du; horrekin elkarren berri izateaz gain, koordinaziorako tresna erabilgarria izango dela pentsatzen baitu. Halaber, Udalarekin harremana asko sentitu dela argi eta garbi baieztatzen du.

Herri ekimenarekin, orokorrean harremana dutela adierazten du, alabaina elkarlana estuagoa izatea gustatuko litzaioke. Izan ere, salbuespenak salbuespen, elkar estimatzen dutela aipatu da elkarriketan; elkarlana beharrezkoa dela uste du plangintza guztiek osotasuna izan dezaten. Nik, nire aztergaia kontutan izanik, GEU, EHE eta AEKri buruz galdetu diot zuzenean, horiek direlako, beste batzuen artean, Gasteizen dauden talde erreferenteak. Horrela, GEU elkartearekin harreman handia dute, AEK-renik ere hitzarmenak dituzte eta herrialdean antolatzen diren ikastaroak emateko prest agertu zirenez, elkarri laguntza eman diote. Orokorrean, euskaltegi sare nagusien berri dute. Izan

ere, EHE-ekin inoiz ez dute harremanik izan; bere ustez, talde horrek ez du ahaleginik egin administrazio bezala ikusten duelako zerbitzua. Edonola ere, Aldundiko Zerbitzuak ere ez du ahalegin berezirik egin azken horiekin biltzeko edota koordinatzeko.

Amaitzeko, EBPN dela eta, euskalgintzan diharduten guzti-guztien mahaia sortzea falta dela azaldu da. Hau da, Araba mailan Euskara Plangintza guztiak kontutan hartuko lituzkeen Aholku Batzordean, bitartekoak zehaztuta, denen arteko adostasun mahaia sortzea falta dela adierazi du Zerbitzu buruak. Honekin batera, denbora ere arazo bezala ikusten du. Hau da, ideiak badituzte, baina guztia egiteko ez dago denborarik. Gainera, lan egiteko modu ezberdinak daudenez, elkarlana korapilatu egiten da; beraz, lan egiteko modua adostea eta, horretan, benetan sinestea lagungarria litzateke honen esanetan. Dena den, saiakerak egin dira, esate baterako, Topagunearekin batera, euskalgintzaren inguruko topaketak antolatu zituzten.

## **4.2. Erakunde publikoen arteko osagarritasuna**

Administrazioko bi erakunde hauen ekimenak eta iritziak kontutan hartuta, osagarritasunaren inguruko hausnarketa proposatuko dut; gerora begira, hemen adierazitakoa herri ekimenerako alderatzeko eta ikuspegi orokorra irudikatzeko.

Hasteko, gorago ikusi dugun bezala, ikuspegi kontrajarriak dituzte AFAko zein Udaleko elkarrizketatuek.

Hots, lehenengoaren ustez, koordinazioa badago, baina hutsune handiak daudela adierazi du. Esate baterako, biltzeko arazoak dituzte eta e-mailez koordinatzen dira; eta, jakina, Aldundiko Euskara Zerbitzu buruaren iritziz, zaila da eztabaidatzea eta adostasun batera iristea bide hori erabilita. Izan ere, elkarren berri dute. Halaber, koordinazio falta hori badagoela adierazi du behin baino gehiagotan ekimenak antolatu baitituzte aldi berean.

Aldiz, Udaleko Euskara Zerbitzuko elkarrizketatuek AFArekin koordinazio handia dutela esan dute. Horien esanetan, hortaz, inoiz ez dute ekintzarik antolatu aldi berean, agenda osatzeko guztien plangintzak aintzat hartzen dituztelako. Horretaz gain, harreman formala nola informala dutela adierazi dute. Hala eta guztiz ere, beraien ustez, badago zer hobetu.

Laburbilduz, koordinazioa badagoela iruditzen zait, baina, agian, bileretan edota adostasun mahaietan koordinatzea falta zaie. Izan ere, nabari da harreman estua eta konfiantza dutela; edozein unetan elkar laguntzeko prest daudela azpimarratu baitute bi aldeek.

Bestalde, herri ekimenearekin harremana badagoela ikusi ahal izan dugu, baina osotasunera iristeko pausoak falta direla garbi geratu da. Hau da, aztergai ditudanen artean, batetik, GEU elkartearekin, adibidez, ekintza ugari antolatzen dituzte biek; eta, hitz egiten duten modua ikusita, lankidetzan ari direla nabari da. Bestetik, helduen euskalduntzean, kulturgintzan eta abarretan, AEKrekin ere harremana badagoela esan dute. Azkenik, EHEekin inongo lankidetzarik ez dagoela ikusi dut. Udalekoekin behin baino ez dira bildu, eta, AFAkoekin inoiz ez. Jakina da, euskalgintzaren historian, EHE sortu zenean, nazio mailan, noski, herri mugimenduaren eta erakundeen arteko etena eman zela, halaber, aurrerago azalduko dudana bezala, horrek ere Gasteizko euskalgintzan eragin zuzena izan dezake.

Horrenbestez, beste elkarte eta eragileekin ere harremana dute eta lankidetzan aritzen dira, baina, lan honetan, ez ditut horiek aztertuko.

### **4.3. Herri eragileen azterketa**

#### **4.3.1 GEU elkarte**

Herri eragileekin hasteko GEU elkarte aurkeztuko dut. Elkarte 1992. urtean jaio zen, izen bera zuen aldizkariarekin batera. Hasieratik, beraz, helburu zehatzak zituen, jakina, Gasteizen euskararen presentzia areagotzea eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzea. Gauzak horrela, ondoren ikusiko dugun legez, bertako euskaldunei kalitatezko euskarazko kultur emanaldiak aurkeztean datza GEUren eskaintza nagusia. Horretaz gain, beste elkarte handiagoetan ere parte hartzen du, horrela, ikuspegia zabaltzeko eta etengabe eraberritzeko aukera du.

Gainera, gaur egun, Gasteizen elkarte erreferentea da; halaber, bazkide kopuru altua du, une oro, babesa emateko prest. Jakina, bazkideekin harremana bermatzen du batzar orokorren bitartez.

Horrekin batera, lau pertsona dihardute lanean; batetik, koordinatzailea eta horren laguntzailea; eta bestetik, mintzalaguna antolatzen beste bi langile.

Horrenbestez honako hauek dira gaur egun elkarteak dituen egitasmoak: Kultur errota, GEUekin mendira, Gasteizko irakurle kluba, GEA. Gasteizko euskararen agenda, Gasteizko Mintzalaguna eta Nahi baduzu euskaraz.

#### Kultur errota

Programa hau, kulturarekin, oro har, zerikusia duten ekintzak antolatzean datza. Beraien esanetan, formatu ertain-txikiko euskarazko eta kalitatezko kultur emanaldiak eskaintzen dituzte. Ekintza horiek, beraz, Gasteizko Parral tabernan gauzatzen dira hileko azken astearteetan. Adibide bezala, aurreko urtean Espazio Hutsak antzezlan, 7 kolore ikus-entzunezkoa, Sokadei taldearen kontzertua, etab.

#### Gurekin Mendira

Noizbait, bazkide bati, Gasteizen Euskal Mendi Taldea sortzea egokia litzatekeela iruditu zitzaion. Hortaz, 1995tik hona 90 bat irteera egin dituzte. Askotariko mendiak igo dituzte, beti, hilabete behin, hileko azkenurreko igandean, hain zuzen ere.

### Gasteizko Irakurle Kluba

Euskal literaturaren inguruan eztabaidatzeko sortu zen talde hau. Alegia, gai, genero zein mota ezberdinetako lanei buruz hitz egiten dute. Hilabete bakoitzean liburu bat irakurtzen dute eta hileko azkenengo ostegunean solasaldiak egiten dituzte. Hori guztia, Iban Zalduak koordinatzen du.

### Nahi baduzu, euskaraz ekimena

Ekimen hau, Gasteizko merkataritza eta ostalaritzari zuzenduta dago. Arlo horietan euskaraz dakitenei “euskaraz nahi baduzu” leloa duen pin bat banatzen zaie, horrela, euskaldunei erraztasunak emanaz. Hala, 2011.urtean, Gasteizen, 100 saltoki edota ostatueta aurki daitezke pina daraman jendea. Horretaz gain, zerbitzu horiek Gasteizko mapan kokatu dituzte eta beraien web orrialdean dago ikusgai.

### GEA. Gasteizko Euskararen Agenda

Ekimen honen helburua Gasteizen antolatzen diren ekintza, jarduera eta ikuskizunen inguruko informazioa biltze eta zabaltzea da. Proiektua aurrera eramateko, bi bide nagusi jarraitzen dituzte. Batetik, GEA txosten elektronikoa zabaltzen du hilero elkarteak. Hau da, posta elektronikoz bidaltzen zaie bazkideei. Horrekin batera, hedabideetara, eskoletara, euskaltegietara, gizarte etxeetara eta gainerako eremu estrategikoetara zabaltzen dute. Bestetik, [www.gasteizkoagenda.com](http://www.gasteizkoagenda.com) bloga sortu eta sare sozialetan ere zabaltzen dute gaur egun teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatuta.

### Gasteizko Mintzalaguna

Egitasmo honek bost urte bete ditu, eta gaur egun 600 bat lagunek parte hartzen dute. Jakina, proiektuaren helburua euskararen normalkuntzan eragitea da. Hala, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak zailtasunak, ezintasunak edota ohitura falta dutenekin elkartzen dira harreman sare euskaldunak sortzeko. Gainera, azpiatal bezala, gurasolaguna kudeatzen du. Horretan, ikastetxe bereko gurasoak elkartzen dira etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko asmoarekin. Hortaz, astero ordubetez solasen dute, eta mintzakide guztien arteko harremana pizte aldera, hilean behin ekintza osagarriak antolatzen dira; mendi irteerak, hitzaldiak, besteak beste.

Halaber, GEU elkarteak ez da sustatzaile bakarra izan, oro har, euskaltegi sarea euskara

taldeak eta ikastetxeak izan dira proiektuaren antolatzaileak, nahiz eta GEUK kudeatu.  
Horretaz gain, babesleak eta laguntzaileak ditu.



## GEU ELKARTEAREN IRITZIA EUSKALGINTZAN DAGOEN OSAGARRITASUNAREN INGURUAN

Hasteko, elkarte honen ustez osagarritasuna dago. Berak, alegia, lan honetan aztertzen diren talde guztiekin du harremana.

Batetik, herri eragileekin oso harreman estua duela adierazi du. Hots, ekintza asko, elkarrekin antolatzen dituzte. Horretaz gain, elkarteak berak, AEK-k eta EHE-ek mahai finkoa dutela adierazi du. Hau da, aurrera eraman beharreko proiektuak adosten dituzte. Garbi dago, talde bakoitzak bere xede esparrua duela, beraz, bakoitzak bere lehentasunak ditu. Hala eta guztiz ere, elkarlanean oso ondo moldatzen direla adierazi du elkarrizketatuak. Gainera, mahai hori guztiz konfiantzazkoa dela esan du, harreman pertsonalak bideratzeko ere balio izan zaiena. Bestalde, aipatutako eragileez gain, beste hainbatekin ere harreman estua dute. Gainera, gorago azaldu bezala, agenda sortu dute euskalgintzan dihardutenak (eta nahi duenak, noski) elkarren berri izateko. Azken finean, elkarte honen ustez, osagarritasuna eta eragileen arteko laguntza ezinbestekoa da. Ziurrenik, hobetzeko badutela adierazi du, baina horren alde ari direla azpimarratu du.

Bestetik, erakunde publikoekin ere oso harreman zuzena duela esan digu elkarrizketatuak. GEU elkarteak Udaleko Sektore Kontseiluko partaidea da, eta, horretaz gain, harreman zuzenagoa ere badutela ematen du. Hots, telefono bidezko harreman estua dute; bai Udaleko Euskara Zerbitzuko kideek baita elkarteak bereak ere, edozein arazo izanik, elkarrengana jotzeko arazorik ez dute. Hala ere, Udalekoak, askotan, elkarteak eskaintako laguntza dela eta, konfiantza handia sortu da, eta askotan laguntza eskatzean bestearen lana oztopatu egiten da. Hala ere, hori oso positibotzat baloratu du; azken batean, konfiantza izatearen seinale baita. Ordea, AFA-ko Euskara Zerbitzuarekin harremana badutela esan digu, baina ez udalekoekin bezain bestekoa.

Hala ere, adibide bezala, "Nahi baduzu, euskaraz" merkataritza eta ostalaritzari zuzendutako proiektua aurrera eraman dute. Udalak ere, bere EBPN-n, jakina, esparru horretan esku hartzeko egitasmoa gauzatu du. Dakusigunez, elkarrekin joan zitezkeen proiektuak dira, baina ez da horrela gertatu. Egia esan, proiektuak ezberdinak dira, baina xede esparrua berdina izanik ez da lankidetzarik sumatzen.

Laburbilduz, GEU elkartearen helburura euskararen normalizazioa da bere eremu guztietan, horregatik antolatzen ditu hartzaile ezberdinak izango dituen ekintzak. Izan daiteke talderen batekin harremanik ez izatea, baina, haien ustez, ez da hori gertatzen.

### **4.3.2 Gasteizko AEK**

Gasteizen lau dira euskaltegi sare nagusiak, horietako bat, noski, aztergai dugun hau; AEK, hain zuzen ere. Horren eginkizun nagusia, euskaltegia izanik, helduen euskalduntze eta alfabetatzean eragitea da. Alabaina, normalizaziorako plangintza ere gauzatua du.

Bestalde, AEK nazio mailako erakundea da, eta, bertan erabakitzen dena Gasteizera ekartzen dute tokiko berezitasunak aintzat hartuta.

Esan bezala, helduen euskalduntzea da euskaltegi sare honen eginkizun nagusia, baina horretaz gain, euskararen normalizazioaren alde egiten dutena azalduko dut lan honetan, hori baita nire aztergaia.

Gauzak horrela, hiru ardatz nagusi zehaztu ditu; lehenik, hizkuntzaren ezagutza, bigarrenik, hizkuntzaren sustapena eta erabilera, eta, hirugarrenik, hizkuntzaren normalizazioan bultzada eman eta helduen euskalduntze eta alfabetatze alorra hobetzea eta eraginkortzea. Hala, puto nagusi horiei jarraiki azalduko dut AEK-k daraman lan-ildo.

#### Hizkuntzaren ezagutza

Euskararen ezagutza bermatze aldera, AEK-k hiru estrategia zehaztu ditu. Lehenengoa, Gasteizen euskararen hazkundea lortzea da. Hori gauzatu ahal izateko, euskara ikastaroak antolatzen dituzte. Gainera, askotan, sektore jakinekin hitzarmenak eginda, horiei zuzendutako eskolak antolatzen dituzte.

Bigarrena, matrikulazioaren hazkundea eta ikasleen leialtasuna (birmatrikulazioa) bultzatzea da. Horretarako, propaganda egiten dute eta giro atsegina bultzatzen dute.

Hirugarrena, emaitzak hobetzea da; hau da, zertifikazio tasa igotzea. Beraz, herritarren ezagutza maila igotzea eta erabileran eragiteko asmoz, eskoletan lanketa egitea suposatzen die.

#### Hizkuntzaren sustapena eta erabilera

Euskararen sustapena eta erabilera bermatzeko AEK-k Egingo al dugu programa sortu zuen duela hiru urte. Programa horren baitan, beraz, bi bide jorratzen dituzte. Alde batetik, eskaintza kulturala, eta, beste alde batetik, eskaintza kultural horren berri emateko sortu duten bloga ([www.egingoaldugu.blogspot.com](http://www.egingoaldugu.blogspot.com)). Horretaz landa, hiru xede ditu programak. Gasteizko AEK-ko ikasleen arteko harremana bermatu nahi du elkarren arteko ezagutza bultzatuta. Horrekin batera, ikasleen ikas prozesuan eta motibazioan eragin nahi du haien

gustuko dituen ekintzak antolaturik. Eta, azkenik, topaketen bitartez, euskaldun eta euskaldungaien arteko harremana bultzatu nahi du.

Hizkuntzaren normalizazioan bultzada ematea eta helduen euskalduntze alfabetatzearen alorra hobetzea eta eraginkortzea

Azken helburu honi lotuta, euskalgintzaren arteko koordinazioa ezinbestekoa ikusten dute. Gorago aipatu bezala, normalizazioari dagokionean, AEK-k gainontzeko herri eragileekin adostutako estrategiak jorratzen ditu. Izan ere, Gasteizen hizkuntza politika egokia bilatzeko elkarlana ezinbestekotzat dute, horrela, herri ekimenak, ahots bakar batez, lanketa egiten du. Bien bitartean, dakigun bezala, helduen euskalduntzea du helburu, eta, esan bezala, hori eskolen bitartez egiten dute.

#### AEK-REN IRITZIA EUSKALGINTZAN DAGOEN OSAGARRITASUNAREN INGURUAN

Talde honen ustez, euskararen normalizazioan eragiteko koordinazioa ezinbestekoa da. Alegia, datu historikoetan azaldu dudan bezala, duela hainbat urte euskalgintzan diharduten herri eragileak batera lan egiten hasi ziren. Halaber, talde horren iritziak, bakoitzak, bere lehentasunak zein helburuak direla eta, beharrezkoak ikusten dituen ekintzak antolatu behar ditu; hala ere, GEUK kudeatzen duen agendaren bitartez, egunak beti errespetatzen dituzte.

Gauzak horrela, hizkuntza politika egokia lortzeko herri eragileen arteko harremana ezinbestekoa dela deritzo, eta horretan dihardutela adierazi du elkarrizketatuak.

Esan bezala, Euskaltzaleon Elkargunea osatu zuten, baina arazoak zirela medio, desegin behar izan zen. Alabaina, elkarlanean dihardute. Mahai finkoa osatu dute, euskalgintzari lotutako gai guztiak eztabaidatzeko. Edozein gauzetarako babesa edo laguntza ematen dute, eta, denboraren poderioz, harreman sendo eta onak egitera heldu dira.

Hots, euskalgintzako gainontzeko eragileekin elkarlanean ari dira, batez ere hizkuntza politika egokiak sortze aldera. Beraz, instituzio publikoei, denek batera, presioa edota proposamenak egitea komenigarria dela deritzo AEK-k. Hala ere, instituzioekin konfrontazioak saihestu behar direla uste dute; azken batean, harremanak onak badira, gauza gehiago lortzeko aukera dutela adierazi du. Aitzitik, presioa egitea ezinbestekotzat jo dute; hau da, minimo batzuk ezarri behar dira euskararen biziraupena bermatzeko, eta minimo horiek lortzeko herri ekimenaren presentzia eta horien eskakizunak errespetatzea ezinbestekoa da.

Ordea, instituzioek eskaintzen dituzten organoak erabakigarriak ez izatearen akatsa aipatu du. Ondo ikusten du elkargunea egotea, baina erabakiak hartzeko aukerarik ez emateak ez du egoki ikusten. Azken finean, politikak garrantzia handia hartzen du kontu hauetan, eta segun eta nor den indarrean dagoen gauza gehiago edo gutxiago egiten dira hizkuntza politika egoki eta eraginkor baten alde.

Honen ustez, politika eta euskalgintza nahastea ez da erraza, azken batean, guzia horren menpe dagoelako. Egia esan, euskararen aurkako diskurtsoa izatea gaizki ikusita dago, eta beraz, gaur egun, Gasteizen, ez da aurkako joerarik ikusten; aitzitik, aldekoa ere ez. Hots, euskara alde batera uzten da, ez da lantzen. Horrek, beraz, alde onak eta txarrak izan ditzake. Batetik, ekintzak antolatzeko ez diete eragozpenik jartzen; baina, bestalde, ez dute inolako erabaki sendorik hartzen eta normalizazioa, bizitza publikoan, batez ere, ez dute

zabaltzen. Adibidez, prentsan ez da euskarari buruzko berri gehiegirik agertzen, ondorioz guztiz gutxietsita geratzen da. Hori ez dago instituzio publikoen eskua, soilik; baina, garrantzia badu.

Honekin batera, Udalak helduen euskalduntzeko plana badu, eta diru-laguntzekin, besteak, beste, eragile honi laguntza ematen dio.

Beraz, garbi dago gainontzeko herri eragileekin oso harreman onak eta eraginkorrak dituztela, eta, neurri apalago batean bada ere, instituzio publikoekin ere lanean jarduten dira.

### **4.3.3 Gasteizko EHE**

Euskal Herrian, duela 30 urte baino gehiago, EHE taldea sortu zen. Talde horrek nazio mailan eragiten du; baina, tokian tokiko lana ere egiten du. Kasu honetan, Gasteizko taldea dugu aztergai. Esan beharra dago, talde honen helburua, Euskal Herri osoan zehar, bera dela; jakina, euskaldun eleanitzez osatutako nazioa. Horretarako, bi lan eragite proposatzen dituzte: batetik aldaketa politikoa, eta, bestetik, baldintza sozialak bideratzea aldaketa politikoa gauzatu ahal izateko. Halaber, herri mugimenduko taldea den heinean, egun, euskarak duen egoera salatu egiten dute, eta, horrekin batera, aldaketa ahalbidetzeko, alternatibak proposatzen dituzte; beti ere, eragile politikoei dagokie erabakiak hartzea, alabaina, EHE-ek eztabaidatzen du alderdi horiek dagozkien urratsak eman ditzaten, beraiek direlako baldintza juridikoak dituztenak.

Gauzak horrela, Gasteizen lehentasunak markatu dituzte taldearen lan ildoan.

#### Euskaraz Bizi Kanpaina

Euskaraz bizitzea da talde honek egin duen hautua, eta, beraz, bere ildo nagusia markatzen duena. Duela urte batzuk, Euskaraz Bizi kanpainari hasiera eman zioten. Bertan, uler dezakegun moduan, bizitzaren alderdi guztiak sartzen dira. Hortaz, hainbat eta hainbat dira jarduteko esparruak. Gauzak horrela, kanpainaren helburuak eta edukiak laburbiltzen dituen manifestua kaleratu zuten. Horrekin, aldaketak bultzatu nahi dituzte; alegia, hausnarketarako baliabidetzat dute. Azken batean, jendeak aldaketaren beharra sentitu behar du, beraz, horixe litzateke manifestuaren xedea eta eragin esparrua.

Hala, esan bezala, hainbat dira landu edota lantzen dituzten esparruak. Noski, guztiak dinamika honen baitan kokatzen dira, helburu nagusia euskaraz bizitzea delako beti. Hortaz, Gasteizen, zenbait arlo lantzen dituzte; esate baterako, hezkuntza, Udal Administrazioa eta Hizkuntza Politika.

#### Hezkuntza

Duela urte batzuk, euskaraz bizitzearen alde borrokan jardutearen erabakia hartu zuen EHE-ek. Hala, hezkuntza puntu estrategiko gisa markatu zuten; azken batean, hori baita ezagutzaren alde dagoen indargunerik nabarmenena. Hortaz, lehentasun osoa eman diote alor horri, beste batzuk alde batera utzi gabe. (hizkuntza politika, ordenantzak...)

Hori aurrera eramateko, ikasturtea bi zatitan banatu dute; alde batetik, irailetik urtarrilera ikastetxeei nola Hezkuntza sailari interpelazioa egin diete; hots, euskal eskola burujabearen mesedean, margoketak, kontzentrazioak eta abar burutu dituzte. Beste alde batetik, urtarriletik aurrera, Gasteizek duen egoeraren berri eman dute ikastetxeetan zein kalean. Azken horrek helburu aglutinatzailea du, eta hori apirilaren 21ean ospatuko den *Euskaraz Bizitzera Goaz egunean* islatu zen. Bestela esanda, edukia zabaltzeko helburua du egun horrek.

### Udal Administrazioa

Esan dudan bezala, gaur egun, hezkuntza da lehentasuna Gasteizko EHE-entzat. Hala ere, beste arlo asko jorratu dituzte dagoeneko, Udal administrazioa, besteak beste. Alor hori hauteskunde garaian aztoratu zuten, eta lantzeko orduan, bi bide jorratu zituzten; batetik, zehar lerroa ireki zuten euskalgintzarekin batera, eta, bestetik, beraien aldetik, alkate hautagaiek euskaraz ez zekitela ikusita *Alkate analfabetorik ez* kanpaina diseinatu eta bultzatu zuten. Alabaina, euskalgintza guztiak osatutako bilguneak egin behar zuen lanean zentratu ziren. Horrenbestez, Kontseiluak dituen ordenantzak Gasteizen ezartzeko apustua egin zuten hizkuntza politika eraginkorra dela uste dutelako. Nolanahi ere, edozein udalerrri, berezitasunak berezitasun, euskalduntzen joateko lehenengo pausua da, ondorioz lanketa hori ezinbestekotzat jotzen zuten. Artean, horrekin lortu izan zena ordenantzen inguruko eztabaida izan zen baina, inola ere, erabakia hartzea.

### Hizkuntza Politika

Atal honetan, arazo larriak ikusten dituzte. Gaur egun dagoen marko politikoak ez du laguntzen euskara lehenetsitako hizkuntza izatera. Alegia, udalerrri erabat euskalduna ez da konstituzionala; beraz, marko hori aldatzea ezinbestekoa da. Honekin batera, azpimarratzen dute gauzatu diren aldaketa guztiak herritarren presioak bultzatuta izan dela. Izan ere, borondate politikoak ere garrantzia handia izango luke alor honetan.

*EHE-REN IRITZIA EUSKALGINTZAN DAGOEN OSAGARRITASUNAREN INGURUAN*

Eragile honen aburuz, euskalgintzan dihardutenen arteko kohesioa ezinbesteko baldintza da. Horretarako, harreman dinamika sortzea garrantzitsua ikusten dute. Hala, Euskaltzaleon Elkargunea izan zena berreskuratzea ona izango litzatekeela adierazi dute. Alabaina, nahiz eta elkargunerik ez egon harremanak mantendu dira guztiek egindako esfortzuagatik. Behintzat, puntu komunak aurkitu dituzte, hortaz, beraien helburua gure hori birsortzea izango litzateke.

Ondoren, duela 30 urte dinamikak aurrera eramateko gauza gehiago antolatzen direla baieztatu digute EHE-ko kideek. Bestela esan, orain dela 30 urte, jendeak militanteki, borondatez hutsez lan egiten zuen; baina gaur egun, diru-laguntzak direla eta, gauzak asko aldatu dira. Hau da, administrazioaren aldetik, diru-laguntzak eskatzea erasotzat hartu izan dute. Jakina, diru-laguntzen menpe egotera eraman ditu tendentzia horrek, orduan, beste bide batzuk guztiz baztertuta geratu dira. Poliki-poliki gauzak aldatu dira, erosotasuna ekarri dute eragileengan, eta, horrek, azken finean, gauza gutxiago bideratzea ekarri du. Horrekin batera, profesionalismoa eta espezializazioa, ikuspegi horretatik ikusita, kalterako izan dela nabarmendu dute. Hots, bakoitzak bere lanean espezialista izatea ez dute gaizki ikusten, baina, gaur egun espezialista dena arlo bakar batera mugatzen da gainontzekoari jaramonik egin gabe. Beraz, hori onargaitza iruditzen zaie. Guztia aintzat hartu behar da, eta bakoitzari egokitu zaion alorra landuta, beste batzuk ere jorratu behar dira guztiaren arteko osotasuna izateko. Gainera, gaur egun, krisi garaian, hori nabarmendu da.

Horrenbestez, zaila da gune komuna izatea eta, are gehiago, hori mantentzea dinamika baten segidan. Hala ere, esan bezala, EHE GEU eta AEK -rekin bildu izan da modu egonkorrean. Honekin batera harreman pertsonalei buruz ere hitz egin dute. Azken batean, segun eta nor dagoen talde bakoitzaren funtzionamendu hobea edo okerragoa izango du. Alabaina, adierazi bezala, herri ekimeneko beste eragileekin harremana mantentzen dutela, batez ere haien irakurketak kontrastatzeko, eztabaidatzeko eta zenbait ekimen elkarrekin antolatzeko.

Bestalde, administrazio publikoarekin osagarritasunik eta lankidetzarik ez dutela aipatzekoa da. Bai Udalak baita AFA-k ere, parte-hartzeko guneak sortu ditu, baina EHE-ren ustez, gaur egun, ez da euskalgintzak behar duena. Hau da, eztabaidatzeko guneak sortu dituzte, baina ez dago estrategia politikorik hori bideratzeko. Gainera, batzorde horiek euskalgintzakoak ez diren beste kide batzuek osatuta daude. Bertan, diru-laguntzei garrantzia gehiegi ematen



zaiela iruditzen zaie. Horretaz gain, Administrazioak antolatutako gune parte-hartzaileak erabakigarriak ez izatea salatu dute. Baina alde positiboa ere ikusten diote; hots, eragileek beraien informazioa elkar trukatu dezakete eta horrekin batera, dauden hizkuntza proiektuen berri ere izan dezakete.

Gauzak horrela, abiapuntua bizi dugun egoera diglosikoa da. Talde honen iritziz egoera hori gainditzeko erabakiak hartu behar dira. Hala, hizkuntza gutxitua lehenesten ez bada, nekez lor daiteke hizkuntza politika eraginkorra. Ondorioz, alderdi politikoek borondatea erakutsi behar dute, eta eragileak aintzat hartu behar dituzte; azken batean, euskalgintzaren alorrean aurrerapauso garrantzitsuenak herritik etorri baitira.

#### **4.4. Herri ekimenaren arteko osagarritasuna**

Aurretik dagoen atalean ikusi dugun moduan, hemen, aztergai ditudan eragileen arteko lankidetzeta eta konfiantza maila oso altua da. Guztiek koordinazioa ezinbestekotzat dute, eta, gainera, gutxi gorabehera, beraien arteko osagarritasun hori bermatuta dagoela adierazi dute guztiek. Gorago aipatu bezala, mahai finkoa osatu dute GEU-k AEK-k eta EHE-ek.

Gauzak horrela, elkarri laguntza eta babesa ematen diote beharrezkoa denean. Adibidez, Instituzio Publikoetako edozein organotan plangintza edo proposamen bat aurkeztu aurretik, beraien artean eztabaidatu eta adosten dute. Esan genezake administrazioaren aurrean kohesioa areagotzen dela. Azken finean, hizkuntza politika eraginkorrak lortzeko minimo batzuk ezartzea beharrezkoa ikusten dute; hortaz, elkarrekin sortutako lankidetzaren bitartez, neurri batean, Administrazioari presioa egin diote.

Hala ere, azken auzi honi lotuta, AEK-k eta GEU-k ez dute inolako konfrontaziorik bilatzen administrazioarekin, hori saihestea nahi delako. Gainera, bi horiek, hein batean, Administrazioaren lan egiten dute. Honekin batera, GEU elkarteak oso positiboki baloratu ditu erakunde publikoek sortutako organo parte-hartzaileak, gainontzeko biek ez bezala. Lehenengoaren iritziz, positiboa da gauzak konpartitzeko esparru bat izatea, eta beste biek hori ere positiboki baloratu dute. Aitzitik, bi horiek erabakigarria ez izatearen arazoa aipatu dute behin baino gehiagotan.

Beste alde batetik, Instituzioekin duten lankidetzeta eta harreman maila oso ezberdina dela azpimarratuko nuke. Esate baterako, EHE-ren ustez, diru-laguntzak jasotzeak arazoak ekarri dizkio euskalgintzari. Batetik bakoitza bere zilborrera begira egotera bultzatzen duelako; eta, bestetik, ekintza gutxiago antolatzeke gaitasuna dagoelako horren ondorioz.

Alabaina, gorago azaldu legez, Erakunde Publikoek eta bi herri eragileek xehe esparru bera dute. Hau da, GEU-k eta Udaleko Euskara Zerbitzuak, bere plangintzaren baitan, merkataritza dute; baina ez dituzte uztartzen. Ordea, helduen euskalduntzeari dagokionez, lankidetzeta badagoela esango nuke bien artean antolatutako ikastaroei dagokienez behintzat.

Hala ere, lankidetzeta handiagoa izan beharko litzatekeela azpimarratu dute hirurek.

## **5. Ondorioak: nolakoa da osagarritasuna?**

Aurreko atal guztietan ikusi dugun bezala, inork ez du aipatu osagarritasunik ez dagoela. Izan ere, orokorrean, gai hori dela eta, elkarrizketatuek nahiko pozik daudela adierazi dute nahiz eta hobetzeko badagoela aipatu. Beraz, ondoriozta dezakegun moduan, denek uste dute osagarritasuna beharrezkoa dela; alabaina, talde bakoitzak ikuspuntu ezberdinetik begiraten dio kontzeptu horri.

Esate baterako, erakunde publikoek osagarritasuna mahai parte-hartzaileetan ikusten dute osagarritasunaren gakoa. Horiek garbi daukaten guztien arteko lana beharrezkoa dela normalizaziorako bidean, hortaz, eztabaida guneak sortu dituzte, bai AFA-k baita Udalak ere. Hots, helburu horrekin sortu baitira Euskararen Aholku Zerbitzua eta Euskararen Sektore Kontseilua hurrenez hurren. Hala ere, herri ekimenak ez du nahikoa ikusten. Jakina, partaidetza bultzatzea positiboki baloratu dute herri ekimeneko elkarrizketatu guztiek; aitzitik, erabakiak hartzeko gunea ez izatea salatu dute. Bestela esanda, eztabaidatzeko gunea egotea ezinbestekoa iruditzen zaie; baina, bertan, iritsitako adostasun eta ondorioak ez dute inolako eraginik erabakitzeke aukerarik ez dutelako. Hori dela eta, alderdi politikoei erantzukizuna eskatu diete. Hortaz, gorago aipatu bezala, herri ekimeneko kideek erakunde publikoei, AFA-ri zein Udalari, bat eginda presioa eragitea erabaki zuten indar handiagoa metatzeko. Azken finean, herri ekimenak eta erakunde publikoek elkar eraginean ari dira bakoitzak bide ezberdinak hartu arren. Azken batean, amaierako helburua bera da guztientzat baina bideak ezberdinak. Ondorioz, herri ekimenak beharrezkoak ikusten dituen pausoak emateko presioa eragiten die, beti ere hizkuntza politika egoki baten alde.

Normalizazioa bidean, ostera, guztiek zeharlerroa irekitzearen alde daude. Hau da, arlo, talde zein esparruetako elkarreragina izatearen aldekoak dira. Hala ere, elkarrizketatu bakoitzak azaldu duenaren arabera, zeharkakotasuna modu ezberdinean ulertzen dutela esan dezaket. Batetik, administrazioak, zeharlerroari berebiziko garrantzia ematen dio, baina hori bere baitan ikusten du. Hau da, euskararen presentzia AFA-k zein Udalak jorratzen eta kudeatzen dituzten zerbitzu guztietan euskararen presentzia eta hizkuntza normalizatzeko ahalegina egoteaz arduratzen dira. Hots, zehar lerroa bere baitan egitea proposatzen dute. Niri planteamendu hori egokia iruditzen zait. Azken batean administrazioa euskalduntzeko ezinbestekoa da arlo guztiak EBPN-rekin bat egitea. Bestetik, herri eragileek beste era batera ulertzen dute kontzeptua; alegia, horiek beraien arteko elkarreraginean ikusten dute. Denek, alde batera, adosten dituzte normalizazioari

begira egin beharreko ibilbidea. Orduan, ikus genezakeen moduan, kontzeptu bera ulertzeko bi modu ezberdin dituzte. Gauzak horrela, eragileek positiboki baloratzen dute euskara administrazioko zerbitzu guztietan egotea, baina horri lotuta dauden hainbat proiektu ez eramatea nabarmendu nahi izan dute. Erakunde publikoek ere oso ondo ikusten dute eragileen arteko zehar lerroa beraien artean egitea, eta, nola ez, horiek aurrera eramaten duten lana modu horretan eramatea, elkarreraginean, alegia; ezin hobeto ikusten dute.

Bestalde, lan honen helburua euskalgintzan osagarritasuna eta koordinazioa dagoen ikustea da. Beraz, talde bakoitzak gai horren inguruan duen iritziari garrantzia handia eman diot. Gutxi gorabehera, elkarrizketatu guztiak arlo ezberdinen lanketa koordinatuaren aldekoak dira. Baina, denok dakigun bezala, erabateko osagarritasuna lortzea oso zaila da. Hala ere, elkarrizketatu gehienek adierazi duten bezala, koordinazioaren alde gehiago egin zitekeen. Honekin batera, bitxikeria bat gaineratu nahiko nuke. Herri eragileek ez dira bere burua justifikatzen ibili osagarritasunaren alde hitz egin dugunean; erakunde publikoek, ordea, bai. Azken hauek behin eta berriz azpimarratu dute oso zaila dela lankidetzan aritzea beste talde batzuekin. Hortaz, ikuspegi kontrajarriak ikus ditzakegu. Aitzitik, honek, nire ustez, arrazoi logikoa dauka. Goiko paragrafoan esan dudan legez, administrazioak zeharkakotasuna bete baitan ikusten du, eta, herri ekimenak, aldiz, ez. Ondorioz, lehenengoak lan handia dauka barne mailako osagarritasuna lortzen eta, gainera, lehentasunak markatu behar direnez, zaila da denbora izatea guztia egiteko. Adibidez, Udaleko euskara zerbitzuak beste zerbitzu batzuekin lanketa bereziak egiten ditu, eta, normala den moduan, indarrak horretan jarri dituzte. AFA-ko euskara zerbitzua, berriz, eskualde bakoitzean dauden teknikarien bitartez herri ekimenetik gertuago kokatzen da. Azken batean, herrietan errazagoa da lankidetzan aritzea elkarte edota eragile gutxiago daudelako. Bien bitartean, herri eragileek, goian esan dudan moduan, zehar lerroa beraien artean ikusten dute. Orduan, beraien arteko osagarritasuna bermatuta dago. Alegia, neurri handi batean kohesioa dute eta lankidetzan aritzen dira; beraien helburu zehatza alde batera, garrantzitsuena adostasunean lan egitea delako, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, bi alderdiak, Administrazio Publikoek eta herri eragileek, bat egiteko guneetan aukerak ere badaude; administrazioetik sortutako eztabaida mahaia esate baterako. Horiei buruz azalpenak emanda daudenez, harremanetarako beste bide garrantzitsu bat aipatuko dut. Gaur egun, diru-laguntzak kudeatzea lehentasuneko ariketa da elkarte batzuentzat, horrela,

bi blokeen arteko harremanak areagotzen dira. Alabaina, badira horren aurka ageri diren taldeak, EHE, besteak beste. Talde horren iritziz, diru-laguntzen kudeaketak erabat baldintzatzen du eragile zein elkartearen jarduna, eta hori ez dute positibotzat hartzen. Noski, diru kopuru hori, askotan, lagungarria izan daiteke, baina gerta daiteke ezer ez jasotzea eta planifikatutako ekintzak bertan behera utzi behar izatea. Horregatik, EHE-entzat diru-laguntzen kudeaketak ez du administrazioarekiko lotutarik eragiten. Hala ere, gainerako herri eragileek askok jarrera malguagoa du administrazioaren aurrean, batez ere, kontu hauek direla eta. Orduan, harremana handiagoa dela esango genuke.

Bestela esanda, administrazioak bere barnean eta herri ekimenak berean harreman sendo eta eraginkorrak dituztela azpimarratuko nuke. Izan ere, gorago, atalez atal azaldutako iritziek adierazten duten bezala, ekintzak antolatzeko orduan, talde bakoitzak bere esparruko besteekin kontaktzen du; baita proposamenak egiteko ere. Hortaz, nahiz eta eztabaida mahaiak egon, bi esparruen arteko zubi hori falta dela nabarmenduko nuke.

Horrekin guztiarekin, pertsona edota taldeen arteko harremanek duten garrantzia azpimarratuko nahiko nuke. Talde bakoitzeko arduradunak zer nolako jarrera duen bestearekiko berebiziko eragina dauka euskararen aldeko normalizazioko lanean jarduteko. Horretarako Robert Putnamek *Sólo en la bolera: el colapso y resurgimiento de la comunidad norteamericana* (jatorrizko lana 2000koa da, itzulpena 2002koa) liburuan azaldutako Gizarte Kapitalaren kontzeptua ekarriko dut. Labur azaltzeko, Putnamek Gizarte Kapital sendoa lortzeko elkarre zein herritarren harreman sare sendoa lortu behar dela dio, geroago ikusiko dugun bezala. Horretaz gain, parte-hartzaileen arteko konfiantza maila altua egoteak garrantzia handia duela azpimarratzen du. Beraz, lehenik eta behin nire aztergai diren taldeen arteko konfiantza mailak aztertuko ditut.

Behin eta berriz errepikatu dut lanean zehar lankidetzak berebiziko garrantzia duela euskalgintzaren osagarritasunean. Askotan, lankidetzak hori aurrera eramatea ez dago pertsonen esku, erabat. Aitzitik, horiek dira protagonista eta motorra; hortaz, harremanak nola garatzen dituzten ikusiko dugu:

<b>HARREMAN PERTSONALAK</b>	<b>AFA</b>	<b>Udala</b>	<b>Geu</b>	<b>AEK</b>	<b>EHE</b>
<b>AFA</b>	-----	Harremana badago,	Harreman estua eta	Dirulaguntzak direla eta	Ez dago harremanik.

		konfiantzazkoa. Hala ere ez da behar bezain eraginkorra. Askotan, une berean ekintza antzekoak antolatu dituzte.	konfiantzazkoa edozein gauzetarako.	harremanak garatu dituzte, konfiantzazkoak . Nahiz eta beste alderdi batzuetan lankidetzrek ez egon.	
<b>Udala</b>	Harreman pertsonal ona, konfiantza badago. Baina, askotan, denbora dela eta ez dute elkarrekin lan egiten. Hala ere bien artean osagarritasuna dagoela ezpimarratu dute	-----	Konfiantza maila altua. Beraiek sortutako eztabaida mahaietan partehartzea asko eskertzen dute, eta edozer gauzetarako beraiekin kontaktzen dute	Ezagutza ikastaroak antolatzeko konfiantza dute. Berriz, normalkuntzare n bidean ez dute bat egiten, baina konfrontaziorik ez dago, eta inork ez du hori bilatzen	Ez dute inolako harremanik, ondorioz, ez dago konfiantzarik. Hala ere, elkar ezagutzen dutela azpimarratu dute, eta pertsonalki arazorik ez dutela nabarmendu dute.
<b>Geu</b>	Harreman zuzena, konfiantzazkoa, alegia. AFAk eskaintzen dien laguntza asko eskertzen dute.	Lankidetzan aritzen diren zenbait ekintza antolatzeko eta eztabaida mahietan parte aktiboa hartzen dute.	-----	Konfiantza eta harreman handia dago. Bilerak maiztasunez egiten dituzte eta normalizazioaren bidean eman beharreko urratsak adostu dituzte. Ekintza ugari elkarrekin antolatzen dituzte	Konfiantza eta harreman handia dago. Bilerak maiztasunez egiten dituzte eta normalizazioaren bidean eman beharreko urratsak adostu dituzte.
<b>AEK</b>	Dirulaguntza k direla eta harremana gauzatu dute.	Ez dute konfrontaziorik bilatzen eta Udalarekin harreman ona	Harreman estua eta hurbilekoa dute. Konfiantza handia dutela azpimarratu	-----	Harreman estua eta guztiz konfiantzazkoa dute. Normalizazioare

<b>EHE</b>	Hizkuntza politika eraginkorrak sortu nahian, presioa egiten diote talde honi, konfrontazio rik bilatu gabe.	izaten saiatzen dira. Hala ere, beraiek lanean presioa eragiten dute.	nahi izan dute. Edozein gauzetarako laguntzeko prest daude.		n inguruko erabakiak elkarrekin hartzen dituzte eta ekintza berezi eta garrantzitsuenak elkarrekin edota elkarren laguntzaz osatzen dituztela nabarmendu du.
	Ez dago harremanik.	Ez dute konfiantzako harremanik. Erabaki eraginkorragoak hartu behar dituztela uste dute, eta, horrekin batera, Udalak sortutako eztabaida mahaia erabakikorra ez izatea konfiantza saihestu du.	Konfiantzako harremana daukate eta elkarrekin hainbat eztabaida egin eta erabaki hartu dituzte.	Harreman pertsonal eta profesionala dute. Ekintza ugari elkarrekin antolatu eta beraien laguntza eta babesa une oro izaten dute.	-----

Goian dugun taula horretan, ezkerrean ageri diren taldeen iritziak bildu nahi izan ditut. Lan guztian zehar aipatu ditut harreman mota hauek, baina modu bateratuan ipini nahi nituen garbiago gera dadin. Beraz, taula horretan bi gauza azpimarratuko nituzke gehien bat. Batetik, administrazioa eta herri ekimenaren artean mugak badaudela; eta, bestetik, herri ekimeneko hiru taldeek era ezberdinean garatzen dituela bere harremanak instituzioekin. Hau da, herri eragileen jarrera ez da berdina instituzioen aurrean, hala ere, bakoitzaren erabakia errespetatzen dute eta gauza guztiak elkarri kontatzen diote.

Alabaina, esan bezala, harremanen eta konfiantzaren auziak hobeto ulertze aldera, Putnamen Gizarte Kapitala (2000) kontzeptua ekarriko dut.

Lehenik eta behin, kontzeptu hau James Colemanek asmatu zuela esan behar dut. Gizarte harremanen baliabideen inguruan hausnartzen du, eta erlazioak zein garrantzitsuak diren

azpimarratu nahi du edozein lorpen eman ahal izateko. Hemendik abiatuta Putnamek teoria osatu du, eta baliagarriagoa izango delakoan, beste autore batzuen gainetik gailenduko dut. Horren aburuz, beste kapitalak bezalaxe, gizarte kapitala oso emankorra da. Are gehiago, helburu askoren lorpena ahalbidetzen du. Halaber, konfiantza eta lankidetzaz bultzatzen du. Batetik, elkarrekin elkarrekotasuna bermatzen du, ondorioz, trukea ere bermatzen du. Bestetik, harremanen egiturak protagonistaren helburuak esfortzu eta kostu gutxiagorekin lortzea ahalbidetzen du, beraz, ikus dezakegun bezala, etekin handia atera daiteke lankidetzatik. Azkenik, helburu jakin batzuen inguruan antolatzeak konfiantza sortzen du eta, modu horretan, gizarte kapitala bidera daiteke. Hala, horrekin guztiarekin ez du adierazi nahi bakoitzak, bere interesetatik aldendu daitekeenik, hots, norbanakoen lankidetzaz aurrera egitea da hemen proposatzen den eredu, ez, ordea, komunitatea. Ez da azken honen ongizatea gailentzen pertsonalaren gainetik.

Beraz, Giza Kapitalaren estatutu teorikoa elkarrekin eta interdependentzian datza. Horrenbestez, elkarrekin parte hartzen duten pertsonen arteko egitura sendoa sortzen da Putnamek dioskun bezala; gainera, horrek kooperazioa eta koordinazioa eskatzen du.

Nolanahi ere, kontzeptua oso egokia da hemen lantzen ari den gaiarentzat. Lanaren izenburuak dioen bezala, osagarritasuna aztertzea da helburua. Horretan, dakigun bezala, koordinazio egokia eta lankidetzaz ezinbestekoa da, eta goian esan dudan legez, bakoitzak, bere interesetik abiatuta, koordinazioa bilatu behar du lan gutxiagori etekin handiagoa ateratzeko.

Horretaz gain, Putnamek eragileen arteko lotura bigarren urratsa dela adierazi du. Aurrerago azalduko digun bezala, protagonisten elkarrekin loturek ahalbidetzen duten testuinguruetan gauzatzen dira. Osterantzean, Colemanek (Coleman, James. 1988. "Social Capital in the Creation of Human Capital". *American Journal of Sociology* 94 (eranskinak): S95-S120) bi arazo ager daitezkeela azpimarratzen du: truke harremanaz ari garenez, lehenik, truke objektua zein den zehaztu behar da eta, bigarrenik, harreman horiei iraunkortasuna zerk ematen dion ikusi behar da. Jakina, arazoak honi ez segitzearekin batera datoz. Hala, behin definizioa eta ohar batzuk ematearekin batera, Gizarte Kapitaleko edozein egiturak erraztasunak eman dakiok beste horren baitan dagoen beste edozein egiturari. Horrela, alderdi batzuk garrantzia handia hartu dute; hala nola, betebeharrak, aukerak, informazio potentziala, arauak, autoritate harremanak eta gizarte antolakuntza zein internazionala. Beraz, puntu horiekin giza kapitalek zein fisikotik bereiz dezakegu



aztergai dugun kontzeptua. Azken bi horiek jabetza pribatua barnebiltzen duten bitartean, gizarte kapitalak ez du zentzurik ondasun pribatuen kudeaketan. Beraz, pertsona bat galtzen dugunean gizarte kapitala murrizten zaigu, ez, ordea, ondasun bat galtzen dugunean.

Hori ikusita, Gasteizko euskalgintzak trukerako objektua zehaztu beharko lukeela pentsatzen dut. Alegia, denek norabide berean ari dira lanean, baina bakoitzak bere egituratik eta bere ikuspuntutik. Izan ere, oso ezberdina da herri ekimenak edota instituzioek osatzen dituzten egiturak eta beraien baliabideak. Orduan, ez litzateke oso zaila izango objektu hori zehaztea. Nolabait ere, esan bezala, beste alderdi batzuek ere parte hartzen dute Colemanen (1988) aburuz Gizarte Kapitala jazotzean. Zaila litzateke gaur egungo euskalgintzak alderdi horiek guztiak betetzea harremanak nahiko korapilatsuak direlako.

Hori dela eta, Colemanek egindako azterketa alde batera utziko dut, aurrerantzean Putnamena askoz egokia delako bi gauzengatik. Bederen, bi lerro ezberdin jarraitu dute autoreek eta azken horrena konfiantzaren eta sareen inguruan sortzen du; lan honetarako, praktikoki, aproposagoa dena. Bestela esanda, lehenengoak edozein gairako balioko lukeen bitartean, bigarenarenak eremu murriztagoetan eragin dezake; agi danean, demokraziari begira eginda dago.

Gauzak horrela, bi galdera planteatzen ditu hasieratik bere teoriaren nondik norakoak azaltzeko: *zergatik da Gizarte Kapitala mesedegarria kooperazioarentzat?* Eta, *zerk bermatzen du kooperazio horrek zentzu kolektibo nola indibiduala izatea?* Hemendik abiatuta, erantzuna harremanen gizarte izaeran eta, nola ez, horretan parte hartzen duten alderdietan ikusi du. Orduan, Putnamen ikuspegia hobeto ulertze aldera, hiru faktore horiek hona ekarriko ditut.

Lehenik, Gizarte Kapitalaren oinarriak zehazten ditu. Hots, kontzeptua oso garrantzitsua da bai jendartearentzat, baita norbanakoentzat ere. Jakina, teoria horretan sareek eta pertsonen arteko loturek eragina daukate norbanakoengan, taldeengan nola komunitateengan. Alegia, Gizarte Kapitalari dagokio pertsonen arteko loturen ordena ezartzea; horrela, Putnamek gizarte antolakuntzaren baitan konfiantzak, arauak eta sareek izan dezaketen protagonismoa azpimarratu du ekintza koordinatuek ekar ditzaketen onurei buruz ari garenean. Hala ere, konfiantza betidanik lotu izan da emozioekin; aldiz, inplikazio handia dauka harremanetan. Hobeto esanda, horrek harremanak bideratu eta errazten ditu

esfortzu gutxiagorekin etekin handiagoa ateratzeko, eta, horrekin batera, loturak bermatzen ditu besteek izan dezaketen portaera ondorioztatzen lagun dezakeelako. Beraz, elkarrekikotasuna ezinbestekoa da. Izan ere, lotura estua dago elkarrekikotasuna eta konfiantzaren artean; halabeharrez, zerbait edo norbaitengan konfiantza jarriz gero, erantzuna jasotzea espero dugu. Aitzitik, bi motatakoa izan daiteke: orekatua edo espezifikoa. Lehenengoak, pareko hartzen dugun trukea gauzatzen denean ematen da, eta, bigarrena, berriz, truke harreman etengabea ezartzen denean; hau da, unean ez da pareko trukerik jazoko, baina denboran zehar izatea espero da. Bien bitartean, azken horrek onura handiagoak ekar ditzake harreman luze eta sendoagoak sortzen dituelako. Ondorioz, horrek norbanakoen arteko kooperazioa suspertzen du bientzat onurak bilatuta; eta, modu horretan, gizarte konfiantza hazten da. Truke bakoitza unean ordaindu behar ez bada fidagarritasuna suspertzen da eta gauza gehiago egin daitezke epe luzera. Nolanahi ere, harremanak bermatzearekin batera, sarea sortzen da; konpromisoak eta beharrek barnebiltzen dituen, alegia. Azken batean, autoreak dioskun legez, sareek kooperazioaren mesederako arauak sortzen ditu; nahiz eta batzuetan etekin komunak ateratzea ezinezkoa izan beste hainbat alderdiengatik.

Hori ikusita, aztergai ditugun taldeen arteko harremanak eta konfiantza mailak Gizarte Kapitalaren baitan ikusteko zailtasunak ditut. Instituzioen artean izan daiteke goian aipatutako harreman espezifikoa izatea; hala ere, ez nuke esango horrelakoa denik. Harremana ez da orekatua ez espezifikoa, harremana badute gauza puntualetarako, baina sarea sortzen saiatu dira nahiz eta AFAko Euskara Zerbitzuko elkarrizketatuaren aburuz sortu ez. Bestalde, herri ekimenaren artean hobeto ikus dezaket Putnamek azaltzen duen harreman espezifikoa hori. Alegia, beraien artean sarea sortu dute, eta gauza gehienak elkarri kontatzen dizkiote. Are gehiago, badakite bestearen laguntza edonoiz izango dutela. Beraz, ondoriozta dezakegu, azaldutako kontzeptuaren bidetik, Gizarte Kapitalak eskaintzen dituen onurak jasoko dituztela. Harreman sendoa sortu dute, konfiantzazkoa. Horrenbestez, kooperazioa ere ematen da.

Alderdi biei (Administrazioari eta herri ekimenari) dagokienean, ordea, ez dut horrelako harremanik ikusten, ez behintzat orokorrean. Herri ekimeneko taldeek jarrera ezberdina dute instituzioekiko. Hots, batetik, EHE-ek ez du inolako harremanik, bestetik, AEK-k harreman orekatua izan dezake, nire ustez. Ekintza puntual batean trukea gauzatzen da. Esan beharra dago ez dela aldi berekoa; alabaina, etengabeko harremanaren aurrean ez

gaudela garbi ikus daiteke. Ekintza bat beste ekintza batekin trukutzen dute inolako sarearik sortu gabe. Azkenik, egoera ezberdina dugu. Geu elkarteak harreman sendoagoa gauzatu du instituzioekin. Diru-laguntzak direla eta, trukea maiztasun handia izan du eta nolabaiteko harreman sendoa sortu dute. Aitzitik, nire ustez, ez dute sarearik sortu. Konfiantza badute, baina ez da sarea izateko bestekoa. Trukea ondasunetan oinarritu izan da gehien bat, orduan, esfortzua eta kooperazioa ez du bultzatu, beraz, Gizarte Kapitalak barnebiltzen dituen onurak ez dira eman.

Bestetik, bigarren faktore gisa, gizarte konpromisoa ikusi du. Horretarako, lehenik eta behin, loturen nolakotasunen garrantzia azpimarratu du. Hobeto esanda, bi lotura mota daude, alde batetik, konfiantzazkoa, erabat sendoa dena, eta beste alde batetik, esporadikoa, konfiantzazkoa dena baina etengabeko harremanik gauzatzen ez denez lotura ahula ezartzen duena. Horiek, bada, gauza ezberdinetarako erabil daitezkeela dio, izan ere, ezinezkoa izango da gauza bera lortzea bata edo bestea erabilia bitarteko gisa. Hala, Putnamek, kontzeptuaren izaera multiformea eta heterogeneoa dela eta, ezinbestean kooperazioa areagotuko ez duela aitortu du.

Gauzak horrela, bigarren faktorea azaltzeari ekin dio; azken finean, horretan ikusten du goian aipatutako arazoaren erantzuna. Beraz, hasteko, nozio horrek erreferentzia egiten dio komunitateari, ez norbanakoari. Gizarte Kapitala ez da truke hutsa, sare trinkoak behar-beharrezkoak dira. Trinkotasunak informatzeko eta komunikatzeko eginkizuna dauka. Bakoitzak eman dezakeena une oro jakin daiteke modu horretan; beraz, horrek, neurri handi batean, koordinazioarentzat, eta, ondorioz, kooperazioarentzat mesedegarria gerta daiteke. Hau da, nire iritziz, izaera multiformea eta heterogeneoa izan behar du, baina aipamen horrekin adierazi nahi diguna oso garrantzitsua da. Jakina, sareko pertsona bakoitzak zenbat emateko prest dagoen ezagutzea ezinbestekoa da koordinazio egokia izateko. Hortaz, elkarrekiko ematen den komunikazioak arazoak arintzen ditu. Horrekin batera, sareen izaera horizontalaren eraginkortasuna ere azpimarratu digu. Esan gabe doa, egitura horizontalean elkarrekikotasuna oso handia dela; eta, horrek, aldi berean, konfiantza areagotzen duela kooperazioaren mesederako. Horren gisan, lankidetzazko errazagoa eta bideragarriagoa da.

Bederen, hori irakurrita, instituzio publikoek sortutako eztabaida mahaiak datozkit burura. Talde heterogeneo eta multiformea da, helburu bera dutenak, gainera. Dena dela, ez dira adostasun batera iritsi. Esan bezala, talde askok beraien artean ez dute konfiantzarik eta ez

da sarerik existitzen. Alabaina, mahai horietan ez dago izaera horizontalik. Eztabaidatzea denen aukera da; baina, azkenean erabakia batek bakarrik hartuko du. Horrela, Putnam aburuz ezinezkoa da kooperazioa sustatzea.

Azkenik, egitura horizontalak dakarren ondorio gisa hirugarren faktorea aurkezten digu, kooperazioa, alegia. Aurrekoetan ere auzi hori etengabe aipatu du. Jakina da ohiturak kooperazioa lagunduko duela, baita interesak eta solidaritateak ere. Horrenbestez, arlo asko jorratu beharko dira kooperazioa izateko.

Ondorioz, lan osoan zehar, eta taulan batez ere, azaldu dudan bezala, ezinezkoa litzateke Gizarte Kapitalak dakarren onurak izatea hainbat alderdirengatik.

Alde batetik, ez dute konfiantzazko harremanik, eta gaur egungo antolakuntza moldearekin ezinezkoa da. Talde guztien esfortzua ezinbestekoa da helburu komun hori lortzeko. Bestalde, gune horizontalak eta erabakigarriak sortzea halabeharrezkoa da. Guztien kolaborazioa bermatzeko berdintasunean parte hartu beha dute. Horrekin guztiarekin, jendarte horretan dauden ohiturak ere paper garrantzitsua jokatzen dute. Hori dela eta, euskalgintzan bertan, eta horren inguruan sarea sortzea lagungarria izan daiteke. Hau da, taldeen arteko koordinazioa txalotuko duen sarea egoteak motibazioa areagotzen du. Are gehiago, sare trinko horretatik kanpo dauden iritziak eta ekarpenak jasotzeko, zilegitasuna emateaz gain, jarraitzeko bultzada eman dezake. Hala, Putnamekin bat nator: gizartea horren jabe izatea ezinbestekoa da. Egia da ez dela gauza erreza, baina soziolinguistikaren laguntzaz gauza asko lor daitezke.

Beraz, alderdi hori aztertzeko Iñaki Martínez de Lunak (Martínez de Luna, I. 2012: *Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena "Bat Soziolinguistika 85 (argitara bidean)"* ) idatzitako artikuluan oinarrituko naiz.

Artikulu horretan, batik bat, gizarteak euskarari buruz duen iritzia aztertu da. Esan dudan bezala, oso garrantzitsua da herritarrak euskararen aldeko iritzia izatea. Horrela, Martínez de Lunak proposatutakoa azalduko dut. Bere iritziz, lotura estua dago iritzi publiko eta komunikabideek idazten dutenaren artean; azken batean, artikuluan azaltzen den bezala, *jendeak garatzen dituen balorazioak eta iritziak ez dira eraikitzen informazio osoaren gainean, baizik eta eskura duen informazio murrizta baliatuta*. Halaber, hizkuntza politika eraginkorra lortzeko babesa ezinbestekoa dela esan du. Hala, herriaren borondateak eta konpromisoa lortzeko bideragarria egingo luke.

Azalpenekin hasi aurretik, framinga *errealitatearen hautemate eta irudikatzea gidatzen eta*

*bideratzen zituen egitura kognitiboa* da. Eta euskararen inguruan bi framing egon dira, bat aldarrikatzailea eta, bestea, uzkurra. Lehenengoari dagokionez, abertzaletasunaren inguruan sortu zen; bigarrena, berriz, nortasun espainiardunaren baitan. Iritzi kontraerriak dira, eta ez du laguntzarik eskaintzen hizkuntza politika eraginkorra geratzeko Martínez de Lunaren arabera. Hala ere, bi framing horien artean ere pertsona multzo zabala kokatzen da. Orduan, planteamendu horiek bakar batean lerratzeko dauden aukerak aztertu dira. Horrenbestez, framing berri baten premia azaldu digu artikulua idazleak. Indarrean dauden bi horiek gainditu behar dira eta herritar gehienek bat egin behar dute beste framing berriarekin. Izan ere, gehiengoaren oniritzia da bilatu behar dena gure hizkuntzaren alde egiteko.

Gauzak horrela, hizkuntza ekologiak berebiziko eragina izan dezakeela aipatu da artikuluan, eta nik ere bat egiten dit iritzi horrekin. Hala ere, kontzeptu horrekin hasi aurretik, Martínez de Lunaren proposamenaren laburpen txikia idatziko dut.

Euskalgintza, euskararen biziraupenerako, noski, framing aldarrikatzailearen, aldekoaren, baitan biltzen saiatu da jende guztia autorearen arabera. Alabaina, ez da nahikoa izan; hortaz, honako hau da planteamendua:

*euskararen inguruan dauden bi sentsibilitateak mugiaraztea eta, bi-biak biltzea hizkuntza horren aldeko elkarlana egin ahal izango duten baldintza berrietara. Horretarako, lau helburu zehatz ezarri genituen: a) Euskararen mamuak uxatzea; b) Framing Uzcurraren eragina indargabetzea; c) Euskararen aldekotasuna piztu edota indartzea; d) Euskararen komunitatea bortizkeria sinbolikotik askatzen hastea eta euskaltzale zintzoak auto-estimua berreskuratzea. Lau maila horien lanketarako beharrezkoak diren edukiak Framing Berriaren ardatz nagusitik eratorri beharko dira, gehienbat, baina baita Framing Aldarrikatzailetik eta Framing Uzurretik ere. (Martínez de Luna, 2012)*

Halaber, hizkuntza eta kultura guztien alde jokatu luke framing berria, beraz inor ez legoke baztertuta. Hori bideratzeko, oinarri filosofiko hauek proposatu ditu: *Berdintasunaren Diskurtsoa, Hizkuntzen Iraunkortasuna eta Hizkuntzen Ekologia*.

Ondorioz, egina dagoen bidea aintzat hartuta, laburki azaldu dudana asmo berri horrekin euskararen aldeko iraganaren zein etorkizunaren ulermena eraikitzea; gizartearen, komunikabidearen eta herri-agintarien agendetan euskara finkatzea eta herritarrak euskararen aldeko jarduerara bultzatzea bilatu nahi da.

Ikus dezakegunez, aipatutako artikuluan azaldutako egitasmoa garrantzitsua izan daiteke

hemen egiten den proposamenerako. Hots, Puntamen aburuz, sare sendoa lortzeak hainbat eta hainbat lorpen ahalbidetuko ditu. Aitzitik, euskalgintzak bat egin behar badu, sarean dauden iritzi kontrajarriek ere bat egin behar dute hizkuntzaren mesederako. Esan bezala, urteetan iritzi kontrajarriak izan dira Euskal Herrian euskarari dagokionean, baina gizarte kapitala trinkoa nahi baldin badugu koordinazioa, elkarlana eta abar sustatzeko, Martinez de Lunak proposatzen duen framing berri hori ere kontuan hartu behar dugu. Azken batean, adostasunak bilatzea ez da gauza erreza, baina euskalgintzak saiakera eginez gero, herriaren erantzuna ere norabide berekoa izatea litzateke egokiena. Nolanahi ere, jendartearen kontua da; ondorioz, herriarekin landu beharrekoa.

Bestalde, arestian esan bezala, hizkuntza ekologiak garrantzia izan dezake jendearen jarreran eragiteko.

Egia da, ekologiak zabalpena izan duela duela urte batzuk hona (Uranga, B. (2011). Hizkuntza-ekologiaz. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (1.5 irakasgaia.); alegia, ingurugiroa errespetatzea guztiontzat onuragarria dela badakigu. Hasiera batean, ez zen erreza izan jende horren baitan lerrokatzea, baina, gaur egun, ingurugiroarekiko errespetu teoriko minimoa badagoela esan dezakegu. Esan gabe doa, ekologia zientzia dela. Orduan, badu aztermodua, ekosistemetan banatuta, alegia. Eremu zehatzei so egiten dio lehenik; ondoren, eremu horien harremanak aztertzeke. Horren gisan, esparru guztien artean oreka egotea ezinbestekoa da zientzia horren arabera. Hala eta guztiz ere, harremanak dinamikoak eta aldakorrak direnez, beste zientzia batzuen laguntza beharrezkoa gerta daiteke (Uranga. 2011). (Lan honetan jorrotzen den gaia ikusita, garbi dago zientzia eta teoria ezberdinen lanketak laguntza handia eskaini dezakeela.). Bestela esanda, teoria horren arabera, harremanak oso garrantzitsuak dira; ondorioz harremanik ez belago ezinezkoa izango litzateke ekosistema bat mantentzea. Beraz, aniztasunaren garrantzia azpimarratzen da etengabe.

Gure eremura ekarrita, hizkuntza ekologiak hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertu eta deskribatzen ditu. Horrekin batera, Calvet hizkuntzalariak dioskun bezala (Calvet, Louis-Jean 1999: "Pour une écologie des langues du monde". Plon. Paris.), hizkuntzak betetzen dituen funtzioak, transmisioa nola egiten den, hiztun kopurua zenbatekoa den eta hizkuntza errepresentazioak kontuan hartzen ditu. Hala, modu orokorrean hartuta, zaila izan daiteke era praktikoa batean ulertzea. Beraz, ikerlarien artean

dauden bi adiera nagusiak aipatuko ditut, laburki bada ere. Batetik, hizkuntzen bere ingurunearekin duten harreman ekologikoa daukagu, eta, bestetik, eremu zehatz batean, ukipen-egoeran dauden hizkuntza desberdinen arteko harreman ekologikoak. Urangaren (2011) arabera, aditu batzuen ustez, egoera kontrajarrian egon daitezke bi adiera horiek; aitzitik, beste askorentzat, ordea, osagarriak izan daitezke. Idazleak bere burua bigarren ardatzaren baitan kokatzen du eta bat nator bere hausnarketarekin. Hots, hizkuntza batek bere ingurunean sortzen dituen harremanek eragin zuzena izan dezakete hizkuntza horren biziraupenean, esate baterako; baita hizkuntza horrek beste batzuekin dituen harremanak ere.

Adibidez, euskarak, bere ingurunean, ez ditu oso harreman egokiak izan hizkuntzaren biziraupenerako, orokorrean. Hiztun komunitatea erabat zatituta egon da, eta oraindik ere zatituta jarraitzen du. Gainera, kasu askotan, euskarak ez du hiztun talde horren identitatea bermatu komunitatearen batasuna oztopatuta mantendurik. Horretaz gain, gogoratu nahi dut, hizkuntza idatzia oso urria izan dela ondoko hizkuntzekin alderatuta; hau da, kulturatik at egon da, ondorioz, ez du prestigio handirik izan. Hortaz, euskararen ekosistema ez da oso ona izan.

Ukipen-egoeran dauden hizkuntzekin ere ez ditu harreman naturalak izan beraien menpe egon delako. Hori dela eta, euskarak ezin izan du erabilera esparru guztietara zabaldu, ezta funtzio guztiak bete ere.

Hori aintzat hartuta, goian aipatutako adiera horiek elkarrekin joan daitezke. Hizkuntza baten ingurunean barneko harremana txarra bada, beste hizkuntzekin ere ez du oso harreman ona garatuko.

Egia da, oro har, oso egoera larrian aurkitzen direla hainbat hizkuntza gaur egun. Joera homogeneousatzailearen ondorioz, askoren transmisioa eten egin da galtzeko joera areagotuz. Beraz, edozein hizkuntzaren galera txarra da gainontzekoentzat; azken finean, aniztasuna galtzeak, hizkuntza gehiago desagertzea ekar dezake, eta, horrekin batera, kultur aniztasuna.

Orduan, hizkuntza ekologiaren laguntzarekin hizkuntza guztien biziraupena bermatu nahi da. Halaber, jendartea horren jabe bada, hizkuntzekiko errespetua izango du, eta, nolahi ere, tokian tokiko hizkuntzaren erabileraren alde egingo du, ondoan dauden hizkuntzekiko harremanak deuseztatu gabe.

Beraz, pertsona guztien baitan ideia hori ezartzen bada, errazagoa izango litzateke

Putnamek aipatzen duen sarea lortzea eta Martinez de Lunak sortu duen framing berri horren alde egitea.



## 6. Azken hitza

Duela urte asko, administrazioaren eta herri-ekimenaren arteko harremanik ez da eman, are gutxiago ideologia ezberdinen arteko elkarlana. Alabaina, badira kasu batzuk lortu izan dutenak. Egia da XX. mendean eten nabarmena gertatu zela bi alderdi horien artean (Arruti, Iñaki. (2011). Euskalgintzaren nondik norakoak. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (3.5 irakasgaia), horren ondorioz, inkomunikazioa oso handia izan zen. izan ere, desadostasunak handiak ziren eta, bakoitzak bere bidea egin zuen. Aitzitik, euskalgintza zulo horretatik atera behar zen, eta zenbait faktorek eraginda gauzatzen hasi zen aro berri bati hasiera emanik. Hala ere, zenbait arazo edo oztopo direla eta, ez zen behar bezala eman.

Bestalde, Arrutik dioskun legez, euskararen aldeko mugimendua Mugimendu sozial Berri bezala definituko genuke. Alegia, *gizabanakoak historiaren lekuko soila izateaz gain, historia horren subjektu protagonista da eta izan nahi du*. Horrenbestez, identitateak garrantzia du, klase sozialak alde batera utzita. Halaber, izaera defentsiboa du mugimenduak eta politikaren erantzukizuna nabarmendu du. Gainera, antolakuntza maila altuaren bidez parte hartzeko modu ez-konbentzionalak garatu dituzte errotikako aldaketa bultzatuta.

Gauzak horrela, Gasteizko testuinguruan kokatuta (EAEko testuinguruan, oro har), mugimendu horietan "militantzia" askoz txikiagoa da; hots, profesionalagoak dira. Orduan, gaur egun, etengabe azaldu dudana bezala, elkarlana ezinbestekoa da. Bakoitzak, duen eginkizuna ahaztu gabe, elkarlana bideratzeko pausuak eman behar ditu mugimendu hori ahalik eta zabalena zein eraginkorrena izateko.

Jakina da hizkuntza baten normalizazioa ez dela berez gertatzen. Pauso kontzienteak eman behar dira horretarako. Esan gabe doa, hiztun komunitateak edo sareak, Putnamen definizioari jarraiki, eman behar dituela urratsak baina eragileek nola Administrazio Publikoak erantzukizun handia dute. Azken batean, beraiek dira jendartea horren baitan lerroka dezaketenak.

Ondorioz, goian aipatutako irtenbidea egokia litzatekeela iruditzen zait. Alegia, herriaren babesa eta parte-hartzea bilatu behar da; beti ere, mugimendu antolatu baten barruan. Hortaz, Putnamek proposatutako gizarte kapitala abiapuntu hartuta, eta herriaren formakuntzaz lagundurik, sare sendo eta trinkoa lor daitekeela pentsatzen dut. Hori bai,

talde bakoitzak bere eginkizun, betebeharrak eta nortasuna alde batera utzi gabe. Azken batean mugimendu heterogeneo baten beharra dago, uztargarria dena, noski.

## 7. Bibliografia

- Arruti, I. (2011). Euskalgintzaren nondik norakoak. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (3.5 irakasgaia).
- Calvet, L.-J. 1999: "Pour une écologie des langues du monde". Plon. Paris.
- Coleman, J. 1988. "Social Capital in the Creation of Human Capital". *American Journal of Sociology* 94 (eranskinak): S95-S120.
- Martínez de Luna, I. 2007: "Euskararen Kale-Erabilera Araban: 1989-2006". Bat Soziolinguistika 64 (61-71).
- Martínez de Luna, I. 2012: "Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena". Bat Soziolinguistika 85 (argitara bidean).
- Putnam, R. (2002). Sólo en la bolera: el colapso y resurgimiento de la comunidad norteamericana. Barcelona. Galaxia Gutenberg : Círculo de Lectores.
- Uranga, B. (2011). Hizkuntza-ekologiaz. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (1.5 irakasgaia).